

6€ **EUSKAL HERRIKO**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA

72
ZENBAKIA

2013ko - EKAINA

Natura

**INGURUMENARI
BURUZKO BEREZIA**

**URETAKO HEGAZTIEN
KONTSERBAZIOA**

TXIRRITXO TXIKIA

TXENADA ARRUNTA

LANPERNA MUSUA

UDA ZERTZETA

KAIO ILUNA

TXIRRI TXIKIA

BASAHATEA

ITSAS MIKA



**EZAGUTU ETA
BABESTU ITZAZU!**

**EUSKAL HERRIKO
UR HEGAZTIAK**

EUSKAL HERRIKO UR HEGAZTIAK

ZOOLOGIA



KAIO BELTZA



TXENADA TXIKIA



ZERRA ERTAINA



UDA ZERTZETA



ITSAS MIKA



TXIRRI KURLINTA



**EUSKAL HERRIKO
NATURA**

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA
ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

*EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarilaren 9koa, Elkarte herri-onurakoa dela aintzatesten duena.*

AURKIBIDEA

Hamaikagarren urtea - 72.zk - 2013ko EKAINA



EDITORIALA

Mendeak daramatzate zientzialariek hegaztiak aztertzen; izan ere, berez interesgarriak izateaz gain, gehienak ingurune ingurumen-kalitatearen adierazle baliagarriak dira. Dena den, gaur egun gero eta zaletu gehiago inguratzeko da hegaztien mundura, gure ingurunea ezagutu eta kontserbatzeko kontzientzia-mailak gorantz egin duela eta fauna-mota horrek ezaugarri bereziak dituelako. Espezie gehien dituzten omodunak dira; lehorreko eta uretako ingurunea erabiltzeko gai dira, eta batez ere, hegan egiteko gaitasun liluragarria dute. Hegazti horietako batzuek migrazio ikusgarriak dituzte. Gainera, forma eta luma erakargarriak dituzte, eta askotan kantu atseginak entzuten zaizkie. Beraz, hegaztiei begiratzea gure ingurune naturalaz, gozatzeko era atsegina da.

Ekosistemen funtzionamendua eta konplexutasuna ezagutzeko ikerketa-arloa funtsezkoa baldin bada ere, hori bezain funtsezkoa da gure landetako eta naturaleko paisaia partaide diren animalia-eta landare-espezieen dibulgazioan are eta ahalegin handiagoa egitea. Horixe da gure eginbeharra, eta honakoa espero dugu: aldizkaria honen bidez gure ohiz kanpoko mundu natural honetaz gozatzeaz gain, gure gizarteak natura mantentzeko arloan dituen erronkak aintzat hartu eta kontzientzia hartzea.

Fernando Pedro Pérez
(Zuzendaria)



Uretako hegaztien	4
Gabai arrea	7
Zanga	8
Ekaitz -txori txikia	9
Ubarroi handia	10
Ubarroi mottoduna	11
Antxeta burubeltza	12
Antxeta mokogorria	13
Kaio iluna	14
Kaio hauskara	15
Kaio hankagorria	16
Kaio beltza	17
Marikoi isatslaburra	18
Marikoi handia	19
Txenada txikia	20
Txenada arrunta	21
Txenada hanka beltza	22
Itsas enara beltza	23
Martin arrunta	24
Potorro arrunta	25
Lanperna musua	26
Aliota artikoa	27
Aliota handia	28
Aliota txikia	29



Eider arrunta	30
Ahatebeltz arrunta	31
Antzara hanka gorritza	32
Ahate txistularia	33
Zertzeta arrunta	34
Uda zertzeta	35
Basahatea	36
Itsas mika	37
Txirritxo txikia	38
Txirritxo handia	39
Txirritxo hankabeltza	40
Urre-txiki arrunta	41
Txirri grisa	42
Txirri zuria	43
Txirri iluna	44
Txiri txikia	46
Kuliska gorria	48
Harri iraularia	51



**EUSKAL HERRIKO
NATURA**

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzio-burua: Iñaki Landaluze.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtear, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta.
Anaut Paterson, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Elena Carriedo.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 **Aleak:** 4.000

Erredakzioa: Av. Madariaga, n.º. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve.2@euskalnet.net
Argitaratzailea: Iraungitze Zorian Dauden Espezieak Defendatzeko Elkarte.



Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZA-ren arteko hitzarmena dela eta WWW.euskomedia.org/adeve

**eusko
media** fundazioa

HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF.: 94 475 28 83

URETAKO HEGAZTIEN

Uretako hegaztiak beren biziklo osoa edo zati bat ingurune urtarrean igarotzen dutenak dira. Hegazti horietako gehienak uretan edo uretatik hurbil elikatzen dira, eta (salbuespenak badauden arren) habitat horretan ugaltzen dira. Dena den, jakina, beren habiak leku lehorrean egin behar izaten dituzte, dela lurrean (belarretan, harkosko artean edo hondarretan), dela haitzean edo dela landaredian.

Hala ere, uretako hegaztiak ez dira denak elkarren ahaide, eta zenbait hegazti-taldetakoak dira.

Buztanikarak eta uretako beste hegazti batzuk beren lehorreko ahaideen oso antzekoak izan arren, ingurune urtarrera oso antzekoak izan arren, ingurune urtarera moldatu beharrak ia denak oso morfologia bereziaz hornitu ditu. Elikatzeko urperatu beharra dutenek gorputz trinko eta hidrodinamikoa dute, altzidoek, txilinportek eta martin arrantzaleek, esaterako. Zangek eta gabaiek hego luze-luzeak dituzte, itsas gainean hegan etengabe ibiltzen direlako.

Hala ere, mokoaren eta hanken diseinuan eragin du ingurunera moldatu beharrak aniztasun nabariena. Lertxun, kurriilo eta zikoinek hanka guztiz luzeak dituzte, baina aliotek edo txilinportek oso hanka motzak dituzte uretarako joera handia dutelako (nekez ikusten

dira lehorretan, hor ibiltzen oso baldarrak dira-eta).

Uretako hegazti askok oin palmatuak dituzte ur gainean edo ur azpian igeri egiteko. Mokoaren diseinua espezie bakoitzaren elikadura-motaren arabera da eta aniztasun handia dago. Arrainez elikatzen diren hegazti gehienek moko indartsu eta zorrotzak dituzte baina limoetako hegaztiak moko estu eta zenbait luzeratakoak izaten dituzte, espeziearen arabera, ornogabeak dauden lohi azpiko sakonetara moldatzeko. Azpimarratzekoa da kurlintak duen mokoaren diseinu bitxia, luzea eta beherantz kurbatutakoa, lohiaren azpitik elikagaiak ateratzeko; abozetena, hau da, luzea baina gorantz kurbatua, uretako ornogabeak harrapatzeko; eta, batez ere mokoabalena, luze-luzea, zabala eta zapala.

Uretako hegaztiengan beren espezie-aniztasunagatik azpimarratzekoa da karadriformeen ordena, honako familiak barne dituen: altzidoak (pottorroak,, martinak eta lanperna-musak), laridoak (antxetak, txenadak eta marikoiak) eta zangaluzak (txirriak, txirritxoak, kurlintak, kuliskak, bernagorriak...). Azken horiek ugari dira eta erraz ikus daitezke Txingudiko paduran elikatzen.

Ugalketa

Gainerako hegaztiak bezala, uretakoak udaberrian ugaltzen dira, martxoan eta uztaila bitartean, baina espeziaren bat edo bestek (ubarroi mottodunak,, adibidez) ugalketa-lumajea izan eta ugalketa-

lanak neguan has ditzake.

Lurrean edo haitzaren arrailduretan habia egiten duten espezieek, arrautzak zuzenean uzten dituzte edo habia egiteko material gutxi ekarrita. Landaretzan habia egiten duten hegaztien habia landuagoa izaten da, saski-formakoa eta landare-materialez egin. Jaiotakoan gurasoekiko duten mendekotasuna ere maila askotakoa izan daiteke. Txirritxo txikiak txitak gurasoen ondoren jaiotako egunean bertan joateko gai badira ere, ekaitz-txorien txita bakarra bi hilabetez egoten da habian gurasoen mende. Ugalketan hegaztiak asaldurekiko os sentikorrak dira. Klima aldetik giro txarra izatea, harraparien lana, eta, batez ere, gizakiak eragindako eragozpenak, aski izaten dira arrautzak edo txikiak galtzeko.

Zorritzarrez Txingudin habia egiten duten uretako hegazti-espezieak gutxi dira. Hori, besteak beste, ur gezako maila egonkorreko zona gutxi dagoelako da, baina batez ere giza presioa handia delako (hareatze-etan batik bat). Ondorioz, txirritxoek, itsas mitek, txenadek eta abarrek ugaltzeko aukerarik ez dute izaten. Hala ere, lezkadi itxietan eta inguruetan babes egokia izaten dute kumeak ateratzeko uroilanda handiek, lezkariak eta basahateak.

Migrazioa eta negupasa

Donostia bisitatzen duten hegazti gehienak askoz ere iparralderago, Europako hezeguneetan, jaiotakoak dira. Batzuk badira, gainera (txirriak, adibidez) Zirkulu Polar Artikoaren inguruko tundran jaiotakoak. Hegazti horiek hilabete berroenetan zona haietako habitata eta elikagaiak aprobeitza ditzakete, baina uda amaitzen denean handik joan egin behar dute; izan ere, janaria urri izaten da eta leku batzuetan elurrak eta izotzak lurra estali egingo du. Hegazti horietako asko Afrikarra joaten dira negua igarotzera, baina batzuk gure hezegunetan geratzen dira negu bigunagoak aprobeitatzeko. Beren migrazioetako bideak bat baino gehiago badira ere, nagusietako bat Atlantikoaren Europako kostetatik igarotzen da, eta Bizkaiko Golkora sartuta, bertako kostal-



detik joaten da edo Iberiar penintsula zuzenean zeharkatzen du.

Txingudik eta kostaldeko padurek, beraz eginkizun garrantzitsua dute beren migrazioetan (edo neguko egonaldian) uretako hegazti-espezie askorentzat atsedeen hartzeko eta elikatzeko zona delako. Negupasan geratzen diren hegazti batzuk (antxeta mokogorriak, esaterako) uztailan hasten dira erotzen, ugalketa amaitu bezain laster. Beste espezie batzuk (aliotak, adibidez) azaroa are ez dira heltzen.

Gure hezeguneen eginkizuna are eta garrantzitsuagoa da Europar ekaitzak eta hotz-boladak direnean. Orduan, iparralderago dauden hegaztiak, izotzak eta elurrak behartuta, presaka ihes egin behar izaten dute (askotan multzo handitan ihes egin behar ere) hegoaldera.

Hegaztiak aztertzen dituztenek markatu egiten dituzte, migrazio-mugimenduen berri izateko. Metodo erabilien

na hanketan eraztunak ipintzea da, bai habia egiten duten lekuetan eta bai migrazioetan sare bidez harrapatuta. Eraztun erabilienak hainbat koloretako plastikozkoak eta metalikoak dira. Bertan letrak eta zenbakiak grabatzen dizkiete. Horri esker ale bakoitza identifikatu egin dezakete, urrutira teleskopio bidez edo eskuratuta (berriz ere harrapatuta edo hilda aurkitzen dutenean), eta nondik nora ibili den jakin dezakete.



URETAKO HEGAZTIEN KONTSERBAZIOA

Migrazio-hegaztiak, eta horietan uretakoak, Naturak muga-konturik ez duela ulertzen adierazteko adibide bikaina dira. Horregatik, espezie horien eta beren habitaten kontserbazioa nazioarteko erantzukizuna da. Beraz, hegaztiak eragina leku batean jasotzen badute, ondorioak haiek ugaltzen, migratzen edo negua igarotzen duten herri eta lurraldeetan igarri ahal izango dira. Eragin horietan hiru dira azpimarratzekoak, larriak direlako:

Habitata suntsitu eta kaltetzea: mehatxu handiena da, bai mundu mailan eta bai gune mailan, eta hezeguneak zein basoak dira giza jarduerak gehien suntsitu dituen habitata. Mendeetan zehar mundu osoan hezeguneak lehortu eta betelanak egin dira, leku horiek osasungaitzak edo ezer ematen ez zutenak zirela uste zutelako, nekazaritzarako eta abelazkuntzarako lurrazteko edo eraikitzeke lur merkeak eskuratzeko.

Habitataren kalitatea galtzeak ere bertako biztanle guztiengan eragiten du. Adibide bat baliabideak gehiagi ustiatzea da, arrainak edo itsaskiak neurritz gain harrapatzea, esaterako, hegaztiak elikagairik gabe geratzen direlako. Beste adibide bat lurren eta ureen poluzioa da. Horren adierazgarri da urte gutxiren buruan gure kostetan lumak hidrokarburoz inpregnatuta hiltzen den hegazti-multzoa (batez ere martin arruntena), itsasoan ontziek legez kontra beren sotoak garbitzen dituztelako. Halaber, ingurunearen kalitatea kaltetu egiten dute aisiarako eta turismorako zenbait jarduerak; padura eta babestutako espazioen barruan izugarri ugaltzen ari diren itsas kirolek, adibidez.

Espezieak sartzeari: hezeguneen kasuan, karramarroak, apoarmatuak, moluskuak, ugaztunak eta, batez ere, beste leku batzuetako arrainak kontrolik gabe uzteak, ekosistema osoa kaltetzen du eta bertako faunarengan eragin larria izaten du, espezie arrotzekin bizitzeko edo lehia egiteko prestatu gabe daudelako.



Paradoxa bada ere, animaliak sartzeko jarduera horiek hezegunea aberastu egiten delako ustetan egiten dira, nahiz eta benetan uste okerra izan. Gainera, arratoiak, katuak edo txakurrak txitatzen ari diren kolonietara sartuta hegazti asko hil daiteke edo hegaztiak zona hori behin betiko utz dezakete habiak egiteko.

Gizakiak landare arrotzak sartzeko ere eragin kaltegarriak ditu.

Legez kanpoko ehiza: oraindik ere uretako hegazti babestuak ehiztariek tiro eginda hiltzen dira, Europako hegoaldeko herrialdeetan batez ere. Zorionez, orain hamarkada gutxi batzuk handia zen eragin hau gero eta txikiagoa da, apurka-apurka fauna eta habitata babesteko lege eta hitzarmenak indarrean jartzen eta betetzen ari direlako.

Munduan hezegune asko gizakiaren ekintzaz gogor kaltetu dira edo konpondu ezineko mailaraino suntsitu dira. Horregatik, ingurumenari dagokionez kontzientzia gero eta handiagoa delako azken hamarkadetan azken hezeguneak eta haietako hegaztiak salbatzeko hitzarmenak eta legeak indarrean jarri dira. Horietakoa da Ramsar-eko Hitzarmena (1971) eta bertan nazioarteko garrantzia dutelako kontserbatzeko lehentasuna duten hezeguneak iltze dira; besteak beste, Txingudikoa. Bestalde, Bonn-eko Hitzarmenaren (1979) helburua migrazio-hegaztiak beren banaketa-esparru osoan babestea da.

Nazioarteko hitzarmen horien erabilerak duen eraginkortasunaren adierazgarri Europar hain hegazti interesgarria den Mokokabal Zuriak populazio-kopuruan izan duen joera-aldaketa da. Orain gutxi arte mokokabal-populazioak argi eta garbi murrizten ari ziren, baina gaur egun ugaltzen ari dira ugaltzeko lekuak, negua igarotzekoak eta, batez ere, Txingudi eta antzeko hezeguneak (migratio-ibilbidean pausaleku gisa erabiltzeko behar dituztenak) kontserbatzeko neurriak betetzen ari direlako.

GABAI ARREA (*Calonectris diomedea*)

EZAUGARRIAK: lumajeko koloreen kontrasteak nabarmentzen du, goiko alde nabargris ezkatatsua eta behekoa zurixka duelako. Ertz guztiak eta hegoen puntak marroi ilunez azpilduak ditu. Itsas beltzak gutxitan izaten du zerrenda zuria isatsaren eta bizkarraren artean. Buru grisaxka du eta moko indartsu horia, hurbiletik baizik ikusten ez zaiona. Astiro eta motel hegan egiten du uraren mailan. Hegada indartsua eta planeatze luzea du, eta gainerako gabaiek bezala, txandaka bizkarra eta sabelaldea erakusten ditu.

Gabai handia (*Puffinus gravis*) tamainaz antzekoa da, baina hegaz azkarrago egiten du eta sabel argian orban marroia, isatsaren oinarrian zerrenda zuria eta txano ilun bereizgarria ditu.

TAMAINA: 45-56 cm. Europar ibili ohi den gabaletan handiena da.

BIOLOGIA: ugalketa-garaitik kanpo pelagikoak dira eta ia Ozeano Atlantiko osoan ibiltzen dira. Euskal Herrian itsasertzetik baino ezin da ikusi, beren izaera pelagikoa dela eta.

Uztailaz gero egoten dira ustez ugalketarako ez diren aleak, baina iraila eta azaroa bitartean izaten da



Mendebaldeko migratio-fluxu handiena. Urteko gainerako hilabeteetan dezentz bakanagoak dira. Gehien sumatzen diren aleak Ozeano Atlantiko artxipelagoetan (kanarietan, Madeiran, Berlengan edo Azoreetan habia egiten duen subespeziekoak dira. Dauden hiru subespezieek Mediterraneo itsasoko hainbat artxipelagoetan eta Makaronesiako zenbait irlatan egiten dute habia.

ELIKADURA: arrainek, zefalopodoak eta beste ornogabe txikiak jaten dituzte eta batzuetan arrantza-ontzien atzetik ere ibiltzen dira, bazterkin bila.

BALEARETAKO GABAIA (*Puffinus mauretanicus*)

EZAUGARRIAK: kontrasteko tonuak ditu gabai honek: gainaldea nabar iluna eta azpialdea marroi argia. Horrek bereizten du antzekoa den Gabai Arruntaren diseinu zuribeltzetik. Bizkarreko kolorea uniforme da, baina azpian lerro axilarra, uzki alde eta hegoen puntak marroi ilunekoak ditu. Hegazti lerdina da, uraren mailan hegada indartsuak eta planeatze laburrak txandakatuz hegan egiten duena, aldi berean, bizkarra eta sabelaldea ere txandaka erakusten dituela. Mediterraneo Gabaiaren oso antzekoa delako bi espezieak bereiztea zaila da, baina Baleareetako txikiagoa da eta beheko alde argiagoa du. Gabai Arruntaren antza ere badu (*Puffinus puffinus*), baina hegan azkarrago egiten du eta kolore-kontraste handiagoa da.

TAMAINA: 32-38 cm.

BIOLOGIA: baleareetan besterik ez du habia egiten. Bizkaiko Golkoan maiz ikusten da, negua Ozeano



Atlantikoan (Britainiar Irletatik Mauritaniaraino) igarotzeko joera duelako. Erabat hegazti pelagikoa da ugalketa-garaitik kanpo.

Gabaletan ugariena da. Gure lurraldera azaltzen ekainean hasten da, ugalketa amaitu ondoren, eta apirila arte irauten du, baina ugariena udazkenean eta neguan izaten da.

ELIKADURA: arrain txikiak eta txikiak murgilketa laburrez bereganatu eta janda elikatzen da.

ZANGA (*Morus bassanus*)

DESKRIBAPENA: tamaina handiko itsasoko hegazti hau altuera handitik itsasora jauzi eginez arrantza egiten ikusi ohi da. Hegoak luzeak eta zorrotzak dira, eta buztana kuneiformea. Adin desberdinetako aleak, lumajeari begiratura bereiz daitezke. Gazteek orban zuriz apainduta-kolore arre iluna aurkezten duten bitartean, helduak erabat zuriak dira, hegoen punta beltzak eta buru horixka salbu, tarteko lumajea aurkezten duten adin ertaineko aleak ere ikus daitezkeelarik. Olatuen gainean hegaldi laburrak egin ohi ditu, planeaketa lirain horietan hegoak ia batere astindu gabe.

TAMAINA: luzera. 92 cm. Hego luzera: 175 cm.

BIOLOGIA: portaerari dagokionez, daturik nabarmenena arrantza egiteko teknika berezia da. 25 metrokoa izan daitekeen altuera handitik uretara jauzi eginez murgiltzen da, gero uraren gainean une batez egon ondoren, harrapakina dar-malarik hegan abiatzeko, zorterik izan badu, behintzat. Uraren kontrako kolpe bortitza jasan ahal izateko, zangaren mokoa garezurrekin bat eginda egon beharrean (beste hegazti gehienek kasuan bezala), bi egitura horien artean malgu samarra den kartilagoa dauka, honek, malgukia bailitzan, talka indargabetu dezan.

Populazio banaketa: gure kostaldean urte osoan zehar dago. Hala ere, migratzaileen talde handiak abuztuak aldera agertzen hasten dira. Ibilaldiari lehenengo ekiten diotenak ale gazteak dira, eta urriak aldera ale heldu



gehiago ikus daitezke, momentu honetatik aurrera eta hurrengo udaberria heldu arte, proportzioak honela mantenduko direlarik: gazteak 4%, lehenengo urtekoak 17%, bigarren urtekoak 14% eta helduak 64%. Udaberria heldu lehenengo urteko hegaztiak ugariagoak dira.

ELIKADURA: arrainak jaten ditu.

HABITATA: hegazti pelagikoa da, bizitzaren parte handiena itsasoan ematen duen hegaztia, lurrera ugalketa garaian soilik hurbiltzen dela esan daitekeelarik. Beraz, itsas zabalean bizi da, noizean behin, arrantza egiteko edo ekaitz bortitzetatik babesteko, gure kostaldera hurbiltzen bada ere. Euskal Herriko kostaldeko herritan ondo ezagutzen den hegaztia da, nahiz era gure itsas ertzean ez ugaltu. Abuztu, irail eta urriko hiletan hegazti hauen multzo handiak ikus ditzakegu kostaldea. Ipar Atlantikoko ugaltokitatik Afrikako kostaldetara bidaiatzen du; azken kostalde hauetan gazte-heldugabeak igarotzen dute negua. Udako hiletan ez da zaila zangaz beren arrantzako sistema ikusgarria praktikatzeko ikustea: 25 bat metroko altueran hegan doazelarik, zut erortzen dira ura zulaturik arraien bat harrapatzeko. Arrantza-mota hau zorigaitzokoa izan da zanga askorentzat, hil egin baitira oraindik arrantzale askok erabiltzen duan ohitura bat dela medio; hona: ur gainean flotatzen duen ohol baten gainean hildako arrainen bat ezartzen dute.



EKAITZ TXORI TXIKIA (*Hydrobates pelagicus*)

EZAUGARRIAK: itsas hegazti txikia da, kolorez erabat beltz nabarra, ipurtxuntzur zuria eta hega azpiko zerrenda zurixka izan ezik. Gabaien antzera egiten du hegan, hegada bizkorrek eta planeatzeak txandaka eginez, baina alderrai gehiago ibiltzen da. Elikatzen ari denean, ordea, badirudi uraren gainean ibili egiten dela, aldi berean hegaka indartsu eta alderrai dabilela. Burua bereziki biribildua du eta mokan, txiki eta beltzean, goialdean sudurzulo izenekoak nabarmentzen dira eta hortik ateratzen du elikatzen denean sartutako gatz-soberakina. Hegan ari denean, hankak ez dira isatsa baino luzeago ikusten, eta, horren bidez, bereizten da antzeko espezieengandik.

TAMAINA: luzera: 15 cm.

BIOLOGIA: itsas zabalean ematen du ia denbora osoa, plataforma kontinentalean; habiak egitera baino ez da hurbiltzen lehorrerara, eta orduan, hormak, arrakalak eta labar-eremu harkaiztsuetako hutsarte txikiak eta uhartetxoak aukeratzen ditu kokalekutzat, harrapakinentzako eskuragaitzak diren tokiak. Kolonietan bildu ohi da. Zuzen egiten du hegan, eskuarki uraren arrasetik, eta hegazkada arinean. Igerilari trebea da. Arrautza bakarra izaten du erru-naldi bakoitzean. Kalkuluen arabera, ehun bikote ugaltzaile inguru izango dira; populazioaren tamaina, berriz, 200 banakokoa



baino zertxobait handiagoa da. Ikuskizun dago zer-nolako joera duten. Populazio honetakoak habiagintza, esaterako, oraindik orain baino ez da egiaztatu ahal izan. Ekaitz-txori txikien populazioen atzerakadaren arrazoitzat jotzen dira, besteak beste: elikadura-baliabideen urritasuna, horren ondorioz murriztu egin baita bikote ugaltzaileen kopurua; kaio eta arratoi harraparien erasan etengabea; edota, kutsatzaile kimiko eta hondakin toxikoen ondorio kaltegarriak. Espezie honi dagokion atxikipen-maila handia da beste mehatxueta-

ko bat, alegia kolonia ugaltzaile leku jakin batean fin-katzeko duten joera; horrek hedatzea galarazten die, eta halaber kolonia txikien galera dakar, gure lurraldekoari gertatzen zaionez.

Ozeano Atlantikoko (Islandia eta Norvegiatik Kanariak irletaraino) eta Mediterraneo itsasoko (Hydrobates pelagicus melitensis subespeziea hazten da) espezie habiagilea da. Ehunka aleko koloniatan habia egiten du uharte eta uhartetotan.

ELIKADURA: ur-azalean harrapatutako krustazeo, zefalopodo eta arraintxoak elikatzen da. Arrantza-ontziei ere jarraitu ohi die, uretara jaurlitzen dituzten arrain-hondakinen atzetik.

HABITATA: itsas zabalean bizi da. Banaketa-eremu atlantikoa dagokion espeziea da: hasi Islandiatik eta Kanariar uharteetaraino hedatzen da. Euskal Herrian, bost kolonia ezagun daude, guztiak ere Bizkaiko kostaldean kokaturikoak. Espezie egoiliarra da.



UBARROI HANDIA

(*Phalacrocorax carbo*)

DESKRIBAPENA: ubarroi motoduna-
rekin nahas daiteke, baina azken
honek, txikiagoa izateaz gain, kanpoal-
deko urak eta itsaslabarrak nahiago
ditu. Ilaberen batean atseden hartzen
duen bitartean, hegoak zabaldua
mantenduz lehortzen dituenen,
Euskal Herrian agertzen diren beste
hegazti urtarrengandik erraz bereizten
da. Ale gazteek bularrean kolore hitsak
aurkezten dituzte, orokorrean lumaje
arreagoa agertzen dutelarik. Ubarroi
handiak bi motatakoak izan daitezke:
kontinentalek (*Phalacrocorax carbo*
sinensis) buruan eta lepoan kolore
hitsagoak agertzen dituzte, eta arrun-
tagoa den ozeanikoak (*Phalacrocorax*
carbo) izterrean orban zuria agertzen
du.

Hankak palmatuak dira, hau da, hatzar-
teko mintza daukate.

TAMAINA: luzera: 90 cm. Hego-
Luzera: 130-145 cm.

BIOLOGIA: espezie negutar honetako
lehenengo aleak abuztuak aldera ager-
tzen dira gure udalerrian, maiatzak
aldera alde egiteko. Egunean zehar Itsasora hurbiltzen dira
arrantza lanetan aritzeko, hondo harea-
tsuetako arrainak eta aingirak batez
ere. Ehizatze teknika murgilketan
oinarritzen da, guruin uropigialik ez izate-
gatik (substantzia iragazgaitza jaria-



tzen duen guruina), horretan
aritu ondoren ilabe edo ontzi-
ren batean, eguzkitan zabal-
duz, hegoak lehortu behar
badituzte ere. Gauean eremu
honetatik alde egiten dute
etzalekurantz gehiago elkar
daitezkeelarik.

Espezie arrunta, migratzaile
eta negutarra denez gero. Euskal Herriko leku egokietan
(Txingudi, Abra, Urdaibai eta
Arabako urtegietan). Udago-
ieneko igaroaldia Martxoan eta
Apirilean izaten da, nahiz eta
halakoetariko lehen hegaztiak
Irailean eta inoizkoren batzue-
tan. Abuztuak be ikusten diren.
Negutia Euskal Herriko itsa-
sertzean egiten dabenetatik
txoririk gehienak carbo azpies-
peziekoak dira, gehien bat britainiar uhartetatik etorri
izaten direnak, batez be holandar kolonietatik eto-
rriak izaten dira sinensis azpiespezieko txoriren
batzuk be egoten diren arren.

ELIKADURA: batez ere arrainak zenbait oskoldun
eta urlehortarrekin osatura. Beren handiera dela eta,
ia kilogramo bat elikagai jan behar dute egunero.

ELIKADURA: batez ere arrainak zenbait oskoldun
eta urlehortarrekin osatura. Beren handiera dela eta,
ia kilogramo bat elikagai jan behar dute egunero.

HABITATA: ugaltokia paduretara, erreketara eta
ingurune hauetako uretara oso lotuta dago. Negutzerakoan padurak, itsasadarrak eta kaiak
dituen kostalde baxuagoa nahiago du itsaslabarra
baino, azken hau ubarroi motodunaren ohiko habita-
ta delarik.

Hala ere, ingurune latz eta maldatsuak etzaleku
modura erabiltzen ditu.



UBARROI MOTTODUNA

(*Phalacrocorax aristotelis*)

DESKRIBAPENA: ahatea baino han-
diagoa den hegazti urtar hau, heldua
denean, erabat beltza da. Lepoa luza-
tuta daramalarik hegan egiten du,
hegoak sakoni eta azkar astinduz.
Ubarroi handiarekin nahas daiteke,
baina txikiagoa da eta ez du izterre-
tan, masailetan edo mokoaren oina-
rrian orban zuririk agertzen. Bikotea
bilatzeko garaia datorrenean, ubarroi
mottodunak aste batzuetan zehar
mantenduko duen gandorra aurkez-
ten du mototsa bailitzan.
Ale gazteek bular zuria eta kolore
arrea agertzen dute.

TAMAINA: luzera: 65-80 cm. Hego-
luzera: 90-105 cm.

BIOLOGIA: ugaltokian sedentario
modura jokatzeko du. Itsaslabar latze-
tako zuloetan eta irletan egiten du
habia. Martxorako, arrak algak eta
adartxoak ekartzen ditu, emeak habia
moldatzeko erabili ditzan. Geroago
emeak hiru arrautza errungo ditu,
bikoteak 30-31 egunetan zehar inku-
batu ondoren, txitak jaio egingo dire-
larik.

Gurasoek lehenago paparrean gor-
de dituzten arrainez elikatuko dituz-
te kumeak, 42-46 egun igaro ondo-
ren habia uzteko gai izan daitezen.
Hurrengo bi hilabetetan familiaren
bateratasuna mantenduko dute.



Minutu bateraino luza daitez-
keen murgilketetan harrapatu-
tako arrainez elikatzen dira soi-
lik, honen ondoren, lumajea ira-
gazkorra, harkaitzen baten
gainean hegoak zabalduz
lehortu behar duelarik, ohiko
jarrera bereizgarrian paratuz.
Joera taldekoa neguan zehar
desagertzen denez, garai
honetan ale bakarrak, bikote-
ak, eta gutxiagotan, talde txi-
kiak ikus daitezke.

Europa osoan banatuta dago
espezie hau, eta kontinenteko
kosta guztiak. Itsaso Baltikokoa
izan ezik, hartzen ditu. Maro-
kon Atlantikoaren kostan ere
badu populazio bat. Hiru
subespezie erregistratu dira eta
espezie izendatuaren aleak

dira Bizkaiko Golkoan dabiltzanak.

HABITATA: habia egiteko sarbide zaileko irla arro-
katsuetan eta labar latz eta bertikaletan finkatzen
da, kostaldetik gehiegi aldendu gabe. Kanpoal-
deko kostaldea nahiago duen hegazti itsastarra
da, ingurune maldatsuak, eta oso gutxitan, kaiak,
hondartzak, padurak... ere bisitatzen dituelarik.

POPULAZIO BANAKETA: Euskal kostaldean
ugaltzen den azken hegazti urtar handia dugu
hau, eta etorkizun oso argia ez badu ere, badi-
rudi populazioa oso astiro berreskuratzen ari dela
gaurko eta etorkizuneko mehatxurik handiena
azken urteetan nagusi den kostaldeko hirigintza-
espekulazioan datza, honek ugalketa kolonien
lasaitasuna eta espeziea eremu berrietara zabal-
tzea arriskuan jartzen baitu.



ANTXETA BURUBELTZA

(*Larus melanocephalus*)

EZAUGARRIAK: tamaina ertaineko antxeta hau Antxeta mokogorriaren antzekoa da, baina handiagoa. Ale helduek mantua gris argia dute eta lehen lumen puntak zuriak dira. Udan burua, begiko eraztun zuria izan ezik, erabat beltza dute. Neguan burua zuri bihurtzen da eta begiaren atzean orban beltzak izaten ditu. Lehen neguko aleek hego grisaxka eta marroiak dituzte, punta beltzak dituztela. Bigarren neguko aleak helduak bezalakoak dira; hegoen punta ez, ordea, beltzez orbaindutako zuriak direlako. Mokoia sendoa da, punta kakodun eta guzti. Helduek mutur gorrian zerrenda beltza dute, eta gazteen muturra beltzezka da. Hegan egiteko era Antxeta mokogorriaren antzekoa da, baina hegaleen puntak biribilduagoak ditu.

TAMAINA: 37-38 cm.

BIOLOGIA: habia paduretako zona irekietan eta altura txikiko kostetan egiten du, baina neguan portuak ere erabiltzen ditu. Batez ere Mediterraneoko espeziea da, naiz eta Herbehereetan, Belgikan, Alemanian eta Ingalaterrako hegoaldean ugalketa-lekueetan gero eta gehiago diren. Bizkaiko Golkoaren kostaldean ikus-



ten direnak, hain zuzen Ingalaterra aldean hazitakoak.

ELIKADURA: antxeta gehienak bezala dieta osagai askok osatzen du (intsektuak eta beste antxeten txitak).

HABITATA: espezie hau Euskal Herrian eztei ondoko migrazioan baino ez da egoten (iraila eta azaroa bitartean), baina noizbehinka neguko hilabeteetan ere sumatu dute.

KAIO MOKOHORIA

(*Larus canus*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko antxeta. Negutar gutxi zabaldua kantauriar itsasaldeetan. Ez da bitxia udagoienaz agertu izatea, negutar erregularra ere izanik. Lehen neguko aleek hego grisaxka eta marroiak dituzte, punta beltzak dituztela. Gernikako Ugarran gutxitan ikusi izaten da neguan, hotzaldi gogorretan sarriago agertzen direla, haatik.

TAMAINA: luzera 45 cm. Hego luzera: 112 cm.



ELIKADURA: orojalea da (omogabeak, arrainak, zaborrak).

ANTXETA MOKOGORRIA

(*Larus ridibundus*)

DESKRIBAPENA: ezteialdian, helduek Txokolate koloreko txano ikusgarri bat ageri dute. Umetze garaitik kanpo, hori zuri bihurtzen da, arre koloreko orban txiki batzuk bakarrik gelditzen zaizkiolarik, begien atzean. Bizkarrean gris argia nagusi da; bularra eta beheko aldeak, berriz, zuriak dira. Banako gazteek kolore arre eta zuriak dituzte, zerrenda estu ilun batekin buztanaren muturrean.

Arra eta emea berdinak dira. Antxeta honen ahotsa, barre algararen antzekoa, bere latinezko izenaren zergatia da.

Europako kostalde eta ur gezako masa guztietan arrunta da antxeta. Hegazti arina da, hegal punta zorrotzekoa eta hegan arin egiten duena.

Mokoia eta hankak gorriak dira helduengan eta haragi-kolorekoak gazteengan.

Uztailean eta abuztuan ikusten diren ale gazte gehienak txokolate kolorekoak dira. Lehen neguko aleek bizkarraldea grisa dute, lehen lumetan hegal-orban zuri berezia eta hegoetan luzetara zerrenda grisa izanik.

TAMAINA: luzera: 53-59 cm.

Hego luzera: 100-120 cm.

BIOLOGIA: batez ere landare artean egiten du habia, ur gezako masen ertzetan, nahiz eta neguan argi eta garbi itsasbazterreko zonak hobetsi. Habia, belar eta adaxkaz egina, orokorrean lurrean edo landare halofiloen artean egiten du. Arrautza bat, bi edo hiru erruten ditu. Arrak eta emeak 22-24 egunez txitatzen dituzte. Txitak, erdinidifugoak, bost edo sei aste dituztenean hegaldaten dira. Antxeta mokogorria Europako eta Asiako eremu zabal batean ugaltzen da. Umetzen den aldeetatik hegoaldera ematen du negualdia. Iberiar Penintsulan itsasaldeko eta barrualdeko hainbat hezegunetan egiten du habia. Neguan



gure lurraldera iristen diren milaka hegaztiak kostaldean eta barrualdeko hezegune eta urtegietan ere finkatzen dira.

Iparraldeko muturreko populazioak migratzaileak dira. Hegoalderagokoak, berriz, egoiliarak edo barrenaldekoak izaten dira. Ezteiondoko migrazioa uztailetik azarora bitartean egiten dute eta ezteiaurrekoa edo udaberrikoa, otsailaren eta martxoaren artean.

ELIKADURA: ia denetarik jaten du, arrain txiki eta intsektuetatik hasi eta zabortegetan aurkitzen dituzten askotariko hondakin organikoetaraino.

HABITATA: batez ere padura, albufera, aintzira, itsasertz eta uhartetxoetan agertzen da. Neguan, ibaiak, urtegiak, larre hezeak eta hirietako urmaelak ere okupatzen ditu. Ez dago arriskuan. Bere moldakortasunari esker, hedatu eta lurralde berriak kolonizatu ditu.

KAIO ILUNA (*Larus fuscus*)

DESKRIBAPENA: kaio haus-kara (*Larus cachinans*) baino zertxobait txikiagoa da, eta lumaje ilunagoa du, gris ilunaren eta beltzaren artekoa. Bi arraza bereiz daitezke: kolore gris iluna agertzen duen arraza britainiarra (*Larus fuscus graellsii*) eta bizkarreko aldeia beltza duen eskandinaviarra (*Larus fuscus fuscus*). Kaio ilun asko bi hauen tarteko estadio bezala klasifika daitezke. Gazteak marroiagoak dira, baina kaio hauskara gazteak baino ilunagoak. Kolorea gero eta argiago bilakatuz doa, lau urte betetzerakoan helduen lumajea garatu arte. Hankak eta mokoa horiak dira.

Ale heldugabeek hankak arrosa-kolorekoak dituzte eta mokoa beltza da lehen neguan. Hirugarren urtea bete arte mokoa argitu egiten zaie, haragi-kolorea izateraino.

Onartutako lau subespezie Europako hego-ekialdeko zona epeletatik Siberiako Ozeano Artikoaren kostetaraino daude hedatuta. Bizkaiko Golkoaren kostaldeetan ohizkoak dira *Larus fuscus graellsii* (iberiar penintsulako iparraldean, Britainia Handian eta Islandian habia egiten duena) eta *Larus fuscus intermedius* (Herbeheretan, Danimarkan eta Norvegian).



TAMAINA: luzera: 53 cm. Hego luzera: 134-145 cm.
BIOLOGIA: udazkeneko migrazioa irailean hasi eta azaroan bukatzen da. Dirudienez, lehenengo heltzen direnak graellsii subespezie-oak dira, eta beranduago fuscus-intermedius subespezie-oak datoz. Udaberriko migrazioa martxoan gertatzen da. Kaio ilun negutarrak kaio hauskarekin ondo moldatzen dira, eta jarduera guztietan elkarrekin dabilta. Hau ere orojalea da, hau da, denetarik jaten du, bai sarraskiak eta

hondakin organikoak, bai moluskuak, arrainak, harrak eta mikrougaztunak, baita arrautzak eta txitak ere. Itsaslabar eta uhartetxoetan kokatutako etzalekueetan kaio hauskarekin batera atsedena hartzen du. Zenbait ale urte osoan zehar gertatzen dira, eta banaka batzuk euskal kostaldean ugaltzen dira. Ugaltzeko itsaslabarrak erabiltzen ditu.

ELIKADURA: orojalea da (ornogabeetatik haragi usteleraino).

HABITATA: itsasbazterreko labar, hondartza eta kaietan bizi da. Euskal Herrian uhartetxo eta itsaslabar banaka batzuetan soilik egiten du habia. Urte osoan itsasbazterrekoa da. Batez ere eztei ondoko migrazioak ikusten dira (irailetik azaroa arte) eta gutxi batzuek negua estuarioan igarotzen dute. Ale helduak udan ere izaten dira.



KAIO HAUSKARA (*Larus argentatus*)

DESKRIBAPENA: kaioetan arruntena eta ezagunena dugu, horregatik "*kaioa*" soilik deritzo jendeak. Euskal kostan oso ugariak dira. Bizkaian toki haue-tan aurkitu daitezke: Gaztelugatxe, Ogoño, Izaro, Villano eta beste irlatxo eta itsas labarretan ere bai, orokorrean toki bakartietan. Monogamoa da eta bizitza guztirako parekatzen da, nahiz eta neguan, agian, ezkontideak elkarrekin ez egon. Lurrean egiten dute habia, oso material aldakorrez: adar txiki, plastiko eta hondakin; arra izaten da produktu-kopururik handiena garraiatzen duena.

Lehen arrautzak, Bizkaiko Golkoan, jadanik apirilean eta batez ere maiatzean ikus ditzakegu. Bitik lau arteraino erruten dituzte eta kolore berdexka izaten dute.

Lagun gazteek, kaio-espezie guztietan bezala, lumaje desberdina daukate eta egoera honek 2tik 4 urtera arte iraun dezake. Helduek lumaje zuri garbia daukate, bizkarraren eta hegala gainaldea ezik, hauek grisak baitira, Hegal-punta beltzak dituzte, orban zuriekin. Mokoa horia da, behe-masailaren muturrak orban gorri bat duela. Hankek kolore horia ala arrosa daukate, azpi-espezie denaren arabera. Bizkaian, umatze-koloniak *Larus argentatus*



melanocephalus azpi-espeziekoak dira; hauek hanka horiak dituzte.

Gurasoek daramaten janaria okatu arazteko, txitak haien moko-orban gorria mokokatzen du. Estudio sakonez egiaztatu denez, kolore gorriak beste edozein kolore baino gehiago estimulatu ditu txitak.

Kaio honen bizitza modernoarekiko moldaera benetan harri-garria izan da, zeren eta elikadura itsastar hutseko izatetik orojale izatera aldatu baita; honela gure kostaldetako hondakinen garbiketa-lana egiten du. Europa, Asia eta Amerikako iparraldean oso hedatuta dagoen kaioa da. Onartutako lau subespezie ditu eta horietatik


Larus argentatus eta *Larus argentatus argentatus* (izenekoak) mendebaldeko Europako iparraldean egiten dute habia.

TAMAINA: luzera: 60-65 cm. Hego-luzera: 150 cm.

BIOLOGIA: batez ere itsasbazterreko espeziea da eta itsaslabarretan erruten ditu arrautzak, ugalketarako kolonia ugariak osatuta.

ELIKADURA: orojalea da.

HABITATA: itsasbazterreko labar, hondartza eta kaietan bizi da. Batez ere migratzailea da (irailetik azaroa arte), baina ale solteak edo talde txikiak geratu ohi dira negua igarotzera; otsaila arte, hain zuzen. Eztei aurreko migrazioa oso urria da.



KAIO HANKAHORIA (*Larus cachinnans*)

DESKRIBAPENA: kaio honek itxura zakarra du. Ale helduen lumajea ia erabat zuria da, bizkaraldeko eta hegoen gaineko kolore grisa izan ezik. Hegoen muturrak beltzak dira eta orban zuriz apainduta daude. Hankak horiak dira, baita mokoa ere, beheko barailaren muturrean orban gorria agertzen badu ere. Kaio hauskararengandik bereizteko hauen hanken kolore laranja begiratu behar diogu, baina bi espezieetako ale gazteak antzekoak direnez (antzeko tamaina, lumaje marroia eta hanka eta moko beltzak) adin horretan desberdintzea ia ezinezkoa dela esan genezake.

TAMAINA: luzera: 55 cm.

Hego luzera: 150 cm.

BIOLOGIA: Euskal Herriko kostaldean jarraian bizi izaten duen kaio espezie bakarra da. Ugalkoloniak itsaslabar eta uhartetxo arroksuetako erlaitzetan kokatzen dira. Guztiz bertikalak ez diren hormak bilatu ondoren, habia harrian eraikitzen du. 2 edo 3 arrautza hilabete batean zehar inkubatu eta gero txitak jaioko dira. Txitek, gurasoen mokoan dagoen orban gorria mokokatzen dute, paparrean gordeta daramaten janaria bota dezaten. Bikote bakoitzak, habiaren inguruko lurraldea mugatu eta defendatzen du, eta eremu honen zabalera ugalkoloniako hegazti-dentsitatearen araberakoa izango da.

Txitek sei aste inguru emango dituzte habiaren inguruan, hegan egin gabe.



Lumaje marroia gero argiago bilakatuz joango da, eta 4 urte betetzerakoan helduen lumajea jantziko dute. Arrotzen bat hurbiltzekotan heldu guztiek ugalkolonia gogor defendatzen dute.

ELIKADURA: orojaleak dira, hau da, sarraskiak, zaborretako hondakinak, beste hegaztien arrautzak eta txitak, moluskuak, krustazeoak... jan ditzakete.

HABITATA: kostaldeko itsaslabar eta uhartetxo arroksuetan egiten du habia. Nahiz eta itsasbazterra nahiago izan, ibaien ibilbidea jarraituz barnealdeko zabortegetara hurbiltzen da. Euskal Herriko edozein toki da kaio hankahoria behatzeko egokia, baita zabortegeta ere.

KAIO HANKAHORIA MITXAHELIS (*Larus michahellis*)

EZAUGARRIAK: Europako hego-mendebaldeko espeziea da, Iberiako Atlantikoaren kostaldean eta Makaronesiako uharteetan populazio ugariak dituen. Orain arte *Larus cachinnans*-en subespezietzat hartzen zen, baina duela gutxi adituek aparteko espezie gisa onartu dute. Bizkaiko Golkoaren kostalde osoan kaio arruntena dugu. Hegazti sendoa, indartsua eta eranskorra da. Ale helduek mantu grisa dute, Kaio hauskararena baino zertxobait ilunagoa eta Kaio ilunarena baino apur bat argiagoa.

Bi espezie horiek ez bezala, aurpegia ia zuri edo erabat zuri mantentzen da udazkenean eta neguan. Hegoen muturrak zuriak eta beltzak dira, eta gorputzaren gainerakoa zuria da. Hankak eta mokoa horiak ditu, eta mokoak behe-barailaren muturrean orban gorria du.

Ale gazteak marroiak, ezkatatsuak eta bizkar ilunagoak dira. Lumajea argitu egiten zaie urteak igaro ahala, harik eta laugarren urtean behin betikoa lortzen duten arte. Ordura arte hankak arrosa-kolorekoak izaten dituzte eta lehen urtean beltza den mokoa arrosa-kolorekoa bihurtzen da, baina hiru garren urtea arte punta beltzari eusten dio.

TAMAINA: 55-67 cm.



BIOLOGIA: batez ere itsasbazterra maite du, itsaslabar eta uharteetan habia egiten du eta ibaietan gora joateko joera du.

ELIKADURA: era askotako elikagaiek osatzen dute dieta, baina azkenaldian, zabortegetan izaten delako, elikatzeko ohiturak aldatu egin ditu eta alde batera utzi forma naturalagoak (arrainak, arrantzako bazterkinak, kleptoparasitismoa).

HABITATA: Euskal Herrian urte osoan zehar egoten da espezie hau eta ugalketarako sasoiak apirila eta uztaila bitartean izaten du. Uztailan hasten dira txita gehienak hegan.

KAIO BELTZA (*Larus marinus*)

DESKRIBAPENA: gure kostaldetako laridorik handiena da; neguan maiz ikus daitezke kaio ilun eta kaio hauskaren taldeekin batera. Itsas zabalean ekaitza dagoenean bakarrik ikusten dira ugari samar kostaldean.

Bizkarra eta buztanaren gainaldea kolore beltz ilunekoak ditu; kaio ilunak, ordea, arbel-grisezkoa dauka, beltza baino areagoa.

Hankak arrosa kolorekoak dira eta mokoa horia orban gorria daukalarik beheko barailaren puntatik hurbil.

Europako Iparraldeko kostaldean ugaltzen dira, nahiz eta populazio urri batek Europako Ipar-mendebalean egin.

Kaio guztiak bezala, gazteak hasieran marroiak izaten dira, tonu ilunagoz orbanduak daudelarik; urtetik urtera heldugabeen tarteko lumaje batzuetatik pasatzen dira, helduen erabatekoa lortu arte.

TAMAINA: luzera: 70 cm.

Hego luzera: 170 cm.

BIOLOGIA: Ozeano Atlantikoaren bi ertzetan egiten du habia, baina askoz ere ugariagoa da Europako lurraldeetan (Islandia, Norvegia, Britainia Handia).

Itsasbazterreko espeziea izanik, uhartetxoetan eta itsas-



bazter harritsu edo hareatsuetan egiten du habia, baina noiz-behinka barnealdean ere ikus daiteke.

ELIKADURA: moluskuak, arrainak, arrautzak... gainerako kaio handi guztiak bezalaxe, orojalea da eta arrainak, haragi ustela edo beste hegazti-espezieetako ale helduak edo txitak ere harrapatzen ditu jateko.

HABITATA: negutar urria, sartaldeko iberiar itsasaldean baino ia beste inon ere ez dago zabalduta. Espezie hau ez da lar ugaria euskal itsasaldean, itsaso txarra egoten denean ikusi izaten da gehien bat, Gernikako itsasadarrean. Urritik martxora arte ikusi izaten da, noizean behin apirilean eta irailean ere.

ANTXETA HANKABELTZA (*Rissa tridactyla*)

EZAUGARRIAK: antxeta pelagikoa da, hegaldi eta egitura arinekoa. Ale helduek mantu grisa dute, hegaleen punta erabat beltza (Kaio moko horiarengandik bereizten du) eta gorputzaren gainerakoa zuria. Isatsa apur bat eskotatua da. Neguan ale helduei buru biribildua ilundu egiten zaie eta orban bertikala dute begiaren atzean.

Ale gazteek "V" marka zabal nabaria dute bizkarrean, isatsaren ertzeko zerrenda beltza eta iduneko-erdia garondoan, Antxeta txikiak bezalaxe, baina azken hori txikiagoa da eta "V" zabalagoa eta zikinagoa izaten du. Mokoa horia da helduengan eta beltza heldutasunera iritsi arte, baina hankak beti beltzak dira. Bai Kaio moko horiak eta bai Antxeta txikiak gure zona udazkenean eta neguan bisitatzen dute, batez ere ekaitzak edo hotz-boladak direnean.

TAMAINA: luzera: 41cm.

BIOLOGIA: iparraldeko ekaitz gogorrekin batera ikusten da, zeren itsas zabaleko kaioa baita, eta ugalketarako bakarrik hurbiltzen da kostaldera. Kolonia ugaritan habia egiten du itsaslabarretan eta negua itsaso zabalean igarotzen du.



ELIKADURA: arrainak bakarrik jaten ditu eta ondorioz, arrantza-baliabideak neurritz gain ustiatzearen eragina jasan du.

HABITATA: itsasbazterreko labar. Euskal Herrian uhartetxo eta itsaslabar banaka batzuetan soilik egiten du habia.

Negutar gutxi zabalduta eta irregularra kantauriar-atlantiar itsasaldeetan. 1984ko urtarrilean egundoko hegazti-kopurua zenbatu zen iberiar itsasegian, Kantaurikoko itsasaldean hainbat txori hilda agertu zela. Espezie honek Urriko azken hamar egunetatik aurrera ikusi izaten dira euskal itsasaldean.

MARIKOI ISATSLABURRA

(*Stercorarius parasiticus*)

EZAUGARRIAK:

itsas hegazti honek muturreko bi kolore-faseko -argiko eta iluneko- aleak ditu eta tarteko lumaje asko ere bai. Fase argiak bizkarra eta bularreko zerrenda osatu gabea marroiak ditu, bularraldea zurixka eta garondoa horizta. Arruntagoa den fase iluna, berriz, erabat marroi ilun-iluna da. Ale guztiek ia beltza den txanoa dute. Isatsean erdiko lema-lumak irtenagoak ditu. Hegan ari dela, oso arina ez den egitura, hegal puntazorrotzak eta hegaldi flotatzailea, lehen lumen oinarrian orban argia duela, nabari zaizkio. Ale gazteen lumadia ezkatatsua da, heldue-na baino berdinagoak den hondoaren gainean. Mokoa beste marikoiena baino arinagoa da. Antzekoa baina urriagoa den Marikoi isats luzea (*Stercorarius longicaudus*) txikiagoa eta arinagoa da, eta lema-luma luzeagoak ditu.



TAMAINA: 41-46 cm.

BIOLOGIA: batez ere espezieek leptoparasittoa delako, beste itsas hegaztiei horiek lortutakoa harpatu egiten diete. Horregatik, maiz ikusten da txenadekin eta antxetekin batera migrazioan.

Artikoko kostalde guztietan habia egiten du eta hego-hemisferioan igarotzen du negua. Horregatik, migratzaile transekuatorialatzat hartzen da. Mendebaldeko Europako populazioek

habia Eskandinavian, Eskozian eta Ipar Atlantikoko uharteetan egiten dute.

Euskal Herrian batez ere Matxitxakotik ikusten da maiz, baina itsasoan ekaitza denean porturaino, edo estuarioraino, sar daiteke.

Ia eztei ondoko migrazioan baino ez da ikusten. Kopuru handiena irailean eta urrian izaten da, nahiz eta abuztuaren amaieraz gero azaroa arte ikusten den. Inoiz kopuru handia etorri izan da neguan itsasoan ekaitz handia izan denean.

ELIKADURA: arrain txikiak eta orno-gabeak (krustazeoak, moluskuak, etab).



MARIKOI HANDIA

(*Catharacta skua*)

EZAUGARRIAK:

itsas hegazti luze eta gorputz handikoa, egitura biribildukoa. Lumaje uniforme-an nagusi dira kolore marroia eta lepo, bizkar eta hegoetako tonu horixkak edo zurixkak. Gehienetan azpialde argiagoa du, horko tonuak urre-kolorekoak direlako. Isatsa oso laburra dute, eta gainerako marikoiek ez bezala, erdiko lema-lumak ia ez zaizkie nabari. Ale gazteak helduen antzekoak dira, baina gorriagoak. Hankak eta mokoa beltzak eta oso sendoak dituzte. Hegan ari dela, orban zuri bereziak erakusten ditu lehen lumen oinarrian, zeinak bizkaralde oso ilunarekin kontrastea egiten baitute. Helduak Marikoi (*Stercorarius pomarinus*). Isats bihurtaren ale gazteekin nahas daitezke, baina hori txikiagoa da eta ipurtxuntxurrean zerrendak ditu.

TAMAINA: 53-58 cm.



BIOLOGIA: Islandian, Feroe uharteetan, Eskozian, Norvegian eta ondoko beste eremu txiki batzuetan baino ez du habia egiten. XX. Mendean zehar hedatu egin da eta oraindik ere joera bera du.

Batez ere uharteetan egiten du habia, landaredi motzaz estalitakoak badira batik bat. Beren migrazio-ibilaldietan eta negupasan itsasbazterreko hegaztia da erabat.

Batez ere migratzailea da eta abuztuaren amaieraz gero azaltzen da. Bizkaiko Golkoan negua igarotzera kopuru garrantzitsua geratzen da; beraz, martxoa arte ikus daitezke. Eztei ondoko migrazioan, irailean eta azaroan, izaten dira ugarien. Eztei aurreko migrazioa, berriz, ez da nabaritzen.

Euskal Herrian maiz ikusten da Matxitxakotik; gehienetan ale solteak edo talde txikiak ibiltzen dira. Noizbehinka estuariora edo portuetara sartzen da itsasontzien ondoren, arrantzako bazterkinen bila.

ELIKADURA: oportunista eta kleptoparasittoa da, baina itsas hegazti txikiak ere harpatu ohi ditu.



TXENADA TXIKIA

(*Sterna albifrons*)

EZAUGARRIAK: oso txenada txikia da, baina gainerako txenadek baino azkarra-go eta hegada sarriagoaz egiten du hegan. Lumadia erabat zuria da, mantua izan ezik. Horrek kolore gris argia du eta lehen lumen eraso-ertza ilunxeagoa da. Ale helduek udan kopeta zuria dute, txano eta begi-zerrenda beltzak eta neguan garondoa gris bihurtzen zaie. Ale gazteen lumajea helduek neguan dute-naren antzekoa da. Mokoia eta hankak horiak dira, baina gazteenak ia beltzak. Isatsa laburragoa dute. Itsas Enara Beltza tamainaz antzekoa da, baina betiere ilunagoa, trinkoagoa eta hegaldi motelagoa, eta inoiz ez du murgil egiten arrainak harrapatzeko.

TAMAINA: 22-28 cm.

BIOLOGIA: leku hareatsuetan edo harkoskor artean habia egiten du itsasbazterretan eta ibaetan, baina migrazioan eta negupasan kostaldeko ekosistemak hobesten ditu. Sei subespezie deskribatu dira eta Eurasia, Afrika eta Ozeaniako lurralde zabaletan hedatuta daude. Europako populazioak subespezie izendatuari dagozkio. Iparraldeko populazioa migratzaileak dira.

Euskal Herrian Matxixakotik migrazio-taldeetan ikusten da edo paduran, non gehienetan ale solteak egoten baitira. Baina ikusten da, baina itsasoan ekaitzak direnean zerbait



ugariago.

Bi migrazioetan baino ez da ikusten. Eztei ondoko migrazioa abuztuan eta irailean izaten da eta eztei aurrekoa, askoz ere gutxiago nabaritzen dena, apirilean eta maiatzean. Bi denboraldi horietatik kanpo nekez ikusten da.

ELIKADURA: arrain txikiak eta ornogabeak (krustazeoak, intsektuak, etab) jaten ditu. Horretarako murgil egiten du eta, ondorioz, maiz egoten da airean geldirik.

HABITATA: Euskal Herrian burutzen dituen neguko egonaldietan, kostaldeko inguruneetan geratzen bada ere, kaiak eta padurak nahiago ditu itsas zabala baino.

Gernikako itsasadarrean, bakanak udaberriko igaroaldiarekin apirilean eta maiatzean; udazkeneko migrazioa erregularra izaten da, ugaria ez bada ere, eta iraila eta urrian izaten da, eta noizean behin uztailean eta abuztuan be bai.

IPAR TXENADA

(*Sterna paradiseaca*)

EZAUGARRIAK: lehen deskribatutako Txenada arruntaren oso antzekoa da, baina isats luzeagoa du (kanpoko lema-luma luzeak nabarmentzen dira eta hegoak motzagoak dituelako egitura desberdina ikusten zaio). Gainera lumajea homogeenagoa da, mantu grisa eta gorputzaren gainerakoa zuri zikinekora. Udan txano beltza dute garondoraino eta neguan laburragoa delako kopeta zuria ikusten zaie. Ale gazteek orban argia dute bizkarrean, baina edo-zeelan ere, Txenada arruntarena baino txikiagoa eta argiagoa. Moko osoa gorri argia da udan, eta neguan beltz izateraino iluntzen da. Datu hori agian ez da bereizgarria izango bi espezieak identifikatzeko, zeren udazkenean (hau da, biak gure lurraldeetan maiz ikusten direnean), kolorealdaketako garaia izaten baita.

TAMAINA: 33-36 cm.

BIOLOGIA: itsasertzean eta ibai edo aintziren ertzetan habia egiten du, baina migrazioan eta negupasan funtsean pelagikoa da.

Migratzaile transekuatoriala da, espezieak habia ipar-hemis-



ferioan egin (Frantziako iparraldetik Artiko garairaino, bai Amerikan eta bai Eurasian) eta negua Antartika inguratzen duten itsasoetan igarotzen duelako.

Euskal Herrian batez ere Matxixakotik ikusten da, baina Bermeoko portuaren barruan -baita estuarioan Busturiraino ere- ibili ohi da.

la eztei ondoko migrazioan baino ez da ikusten (abuztua eta urria bitartean). Udaberrian (apirilean eta maiatzean) askoz ere urriagoa da.

ELIKADURA: murgil eginda lortzen dituen arrainak janda elikatzen da.

TXENADA ARRUNTA

(*Sterna hirundo*)

DESKRIBAPENA: elur zuriko lumajea dute, kaskoa beltza eta migrazio-bidaia luzeak egiteko ahalmena. Ezaugarri hauek Txenada arrunta guztiek dituzte.

Txenadak edo ere deituriko hegazti hauek, ugarian dira udazken eta udaberriko pasetan. Koloniatan umatzen dira; gora-behera handiak dituzte koloniok bai beren kokaeran, bai barneko ugalketa bikoteen kopuruan.

Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko kostan ikusten direnak migrazioan doazen hegaztiak dira. Orduan ikus dezakegu beren arrantza-sistema: hegan doazela zut erortzen dira, une batean ur-azpian ezkutatzuz, arrain txikiak harrapatzeko asmoz, hauek osatzen baitute beren elikagai nagusia.

TAMAINA: luzera: 35 cm.

Hego luzera: 80 cm.

BIOLOGIA: espezie kosmopolita da, habia ipar-hemisferioan egin eta negua hego-hemisferioan igarotzen duena. Lau subespezie deskribatu zaizkio eta Europako populazioak subespezie izendatukoak dira.

Gure zonaldean migraziokoa baino ez da hegazti hau. Oso maiz eztei ondoko migrazioan -abuztutik urria bitartean- ikusten da eta gutxiago bada ere, eztei aurreko



migrazioan ere bai -martxoa eta maiatza bitartean-. Garai horietatik kanpo oso bakana.

ELIKADURA: batez ere arrainak jaten ditu, baina zenbait lekutan intsektuek ere osatzen dute dieta.

HABITATA: edozein ur-masatan egoten da, ibai eta aintziratatik (batzuetan altitude handian) hasi eta itsasbazterreraino, baina Bizkaiko Golkoko kostaldeetan hegazti itsastar hutsa da. Euskal Herrian burutzen dituen neguko egonaldietan, kostaldeko inguruneetan geratzen bada ere, kaiak eta

padurak nahiago ditu itsas zabala baino. Igaroaldikoa, Iberian, arrunta igaroaldian (eraztundutako hegazti-berreskuraketa, martxotik maiatza arte). Novalek, udagoieneko igaroaldia uztailean eta irailean delakoa aitatzen du eta udaberrikoa berriz, apirilean eta maiatzean, Gernikako itsasadarrean ez da txenada lar arrunta, ikusi be Martxoan, Apirilean, Irailean eta urrian ikusten dala.



TXENADA HANKA BELTZA

(*Sterna sandvicensis*)

DESKRIBAPENA: txenada-mota guztiek zenbait ezaugarri komun aurkezten dituzte: lumaje zurixka, pileo beltza, migratzera-koan burutzen dituzten ibilbide luzeak, eta arrantzarako teknika berezia. Hala ere, ez ditugu espezie desberdinak nahastu behar.

Txenada hanka beltza arrunta baino handiagoa da, eta bizkarralde argiagoa du. Bestalde, moko beltzak dira, eta pileoko luma luzeek gandar berezia sortzen dute.

Ale gazteak antzekoak dira, baina bizkarra marroiz zerbait tindatuta izan ohi dute eta pileoa ez dago hain definitua.

Ozeano Atlantikoaren iparraldean hiru subespezie daude banatuta eta Europako populazioak subespezie izendatukoak dira.

TAMAINA: luzera: 41 cm.
Hego-luzera: 85 cm.

BIOLOGIA: ia itsasbazterrekoa besterik ez da eta landaredi gutxiko leku hareatsuetan egiten du habia, baina neguan itsasbazterreko edozein lekutan suma daiteke.

Euskal Herrian negutzen duten kaio ilunen kopurua oso txikia da, baina migrazio garaian ugaria-



goak dira. Abuztuaren bukaeran, ugaltu eta gero, Frantziatik datozen ale migratzaileak heltzen dira.

Familia osoak, bikotea eta txita bakarra, elkarrekin dirau. Txita, harkaitz batetik edo gurasoen atzetik hegan egiten duen bitartean, etengabe oihu eginez janaria eskatzen ariko da. Garai honetan arrantzarako teknika berezia beha dezakegu: txenada, altuera handi samarretik uretara amiltzen da, eta une batez murgildu ondoren, arrain txikia harrapatzen du. Arraintxo horiek dira txenada arruntaren elikaduraren oinarria, krustazeoak, harrak eta moluskuak jaten baditu ere. Gure inguruetan aldi batez



atseden hartu ondoren, mendebaldeko Afrika australeko kostalderantz abiatzen da. Udaberriko pasea ez da horren ikusgarria, eta apirilean eta maiatzean gertatzen da.

ELIKADURA: arrainak, krustazeoak, karrak eta moluskuak jaten ditu. Airetik goitik behera zuzenean bere burua botata harrapatzen dituen arrainez elikatzen da.

HABITATA: Euskal Herrian burutzen dituen neguko egonaldiaren, kostaldeko inguruneetan geratzen bada ere, kaiak eta padurak nahiago ditu itsas zabala baino.



TXENADA MOKO BELTZA

(*Gelochelidon nilotica*)

DESKRIBAPENA: itsasoko hegazti mardula da, tamaina ertainekoa, 40 cm luze izan daitekeena ozta-ozta. Moko sendo eta beltza, eta, hegoak eta bizkarralde grisaxkak izatea ditu bereizgarri. Gorputzaren gainerako atalak zuriak ditu. Negu partean argi goa ageri ohi du bizkarralde; ezabatu egiten zaio harrapari-txanoaren beltz kolorea eta belarri aldeetako tonu ilunei bakarrik eusten die beren horretan. Isats urkilatua dauka, kolore grisa; hankak, beriz, beltzak ditu.

TAMAINA: luzera: 40 cm.

BIOLOGIA: zuzen eta arin egiten du hegan; horren lekuko da, esaterako, aireko ehiztaria izatea, nahiz eta lurrean korrika ibiliz ere ehizatzen duen. Ez da uretan murgiltzen. Talde txikiak eratu ohi ditu. Kolonietan egiten du habia, hareatzatan, soilguneetan edota landaredi urriko eremuetan. Sakonune txiki batean egin ohi du habia; ozta-ozta tapizatzen dio barrualdea. Urtean errunaldi bakarrik dagokio; bi edo lau arrautza erruten ditu orduan. Oso txikia izan ohi da gure ingurunean hautemandako hegaztien kopurua. Txenada moko beltzen espezieak atzerakada handia jasan du Europan, aleei nahiz koloniei dagokienez; Iberiako Penintsulako kolonietan ere nabarmena da atzerakada.

Ondokoak dira populazioaren atzerakadaren eragileak: habi-



tataren galera; eta umatze-kolonietan gertaturiko sarraski eta triskantzak, pestizidek eragindako ondorioengatik, harraparien erasoengatik edota giza jardueren ondoriozko enbazuengatik.

ELIKADURA: airean edo lurrean ehizaturiko intsektuez elikatzen da; halaber, zizareak, krustazeoak, arrain txikiak, apaburuak, sugandilak, eta are hegazti txikiak eta ugaztunak ere harrapatu ohi ditu.

HABITATA: delta, estuario, padura eta aintziretan bizi ohi da; umatze-garaitik at, habitat-aukera zabalagoa du bizilekutzat. Euskal Herrian, kostaldean eta estuarioetan ageri ohi da.

ITSAS ENARA BELTZA

(*Chlidonias niger*)

DESKRIBAPENA: tamaina txikiko itsas hegaztia da, 25 cm luze izateraino haz daitekeena. Arrak beltza du burua eta gris-iluna bizkarralde; hegoak eta isatsa, aldiz, gris-urdinxkak ditu. Grisak dauzka beheko aldeak; hegoen behealde gris-argia du. Emeei kolore argiagoa ageri dute; zintzurra gris-argia dute. Neguan, antzeko itxura ageri ohi dute ar-emeek: kolore grisa gainaldean eta zuria behealdean, burua eta lepoa zuriak, eta harrapari-txanoa beltza. Moko beltza du eta gorri-ilunak ditu hankak.

TAMAINA: luzera: 40 cm.

BIOLOGIA: azaleko urak eta landaredi flotatzailea ageri dituzten hezeguneetan ezartzen ditu ugaltokiak. Gurean, barrualdeko hezeguneetan, estuarioetan eta kostaldeko beste hainbat eremutan ageri ohi da. Bizkor eta arin egiten du hegan. Goitik beherako amiltze oldakorrak egiten ditu uretara, nahiz eta azkenean ez den murgiltzen; hegan dabilelarik ehizatzen du. Ohitura taldekoiak dagozkio; taldeetan biltzen da, elikadura-tokietan bereziki. Kolonia txikietan nahiz handietan egiten du habia, urpean gelditutako eremuetan; habia flotatzailea eraikitzen du landaredi artean, landare zingiratarrez baliaturik, eta gai finagoz tapizatzen dio gero barrualdea.

Urtean errunaldi bakarra izaten du eta bi edo lau arrautza



erruten ditu orduan.

Hegaztion agerpena ez da erregularra; ez dira sarritan hauteman ahal izaten. Europako populazioak atzerakada handia pairatzen ari dira; Europa ekialdean izan ezik, han egonkorak baitira oraindik.

Populazioen atzerakadaren zergatia, hain zuzen, euren habitaten galeran edota narriaduran datza, jasandako eraldaketan edo kutsaduraren ondorioz; giza jarduerak eragindako enbazuak ere kaltegarriak izan ohi dira ugaltzian.

ELIKADURA: intsektu, apaburu, zizare eta arrain txikiez elikatzen da.

HABITATA: Euskal Herrian, migrazio-garaian bakarrik ageri da. Ohikoagoa da udazkeneko hegazti-pasean; orduan, kostaldean nahiz barrualdean hauteman daiteke.

MARTIN ARRUNTA

(*Uria aalgae*)

DESKRIBAPENA: Europako gainerako altzido guztiak bezala, hegazti trinkoa da, zuria eta beltza beste kolorerik ez duena. Udako lumajeak bizkar eta burua beltz nabarrak ditu eta neguan aurpegia zuria da, bekain beltza badu ere. Eztei-lumadia due-nean ale batzuei brida zuria ikusten zaie. Urteko edozein garaitan zeharkako zerrendak ageri dituzte, eta hori Europako altzidoetan baino ez da gertatzen. Mokia luzea eta zuzena da eta igeri denean normalean gorantz okertua izaten du. Hankak eta mokoa beti beltzak ditu. Ziztu bizian hegan egiten du, oso azkar eta uraren mailan, bere hegala luze, estu eta galtzarbe ilunekin. Ale heldugabeak eta helduak oso antzekoak dira.

TAMAINA: luzera: 38-43 cm.

BIOLOGIA: uharteetako erlaintzetan eta itsaslabarretan habia egiten du milaka bikoteko kolonietan. Lehortarra habia egitera baizik ez da joaten eta gainerako urte-sasoiaren pelagiko hutsa da.



Onartutako bost subespezieak Ozeano Atlantikoaren eta Barearen iparraldeko zonetan banatuta daude. Horieta-ko hiruk Mendebaldeko Europan egiten dute habia (*Uria aalgae aalgae*) izenekoak Irlandan eta Ingalaterran, eta *Uria aalgae hyperborea* izenekoak Norvegian. Eztei ondorengo migrazioa oso nabaria da urria eta abendua bitartean. Abendua eta martxoa bitartean portu eta badiatan ikusi ohi da, baina uretik urtera aldaketa handiak izaten dira. Udaberrian eta udan gure kostaldean oso nekez azaldu ohi da. Euskal Herrian migrazio-taldeetan ikusten da Matxitxakotik, eta inoiz oso ugari ibiltzen dira. Portuetan -Bermeo Mundaka Ondarroa) eta itsasbazter osoan ale solteak ikusi ohi dira eta noizbehinka baino ez dira estuariora sartzen. Seguru asko orain hamarkada batzuk arte Bizkaiko itsasbazterrean habia egiten zuen. **ELIKADURA:** urpean hegotez bultzatuta igeri eginez lor-tzen dituen arrainez baino ez da elikatzen.




POTORRO ARRUNTA

(*Alca torda*)

DESKRIBAPENA: martin Arruntaren oso antzeko itxura du lumajearen diseinuari eta tamainari dagokionez, baina zerbait potxoloagoa eta trinkoagoa da. Gainaldea erabat beltza du eta azpialdea zuria. Udan kolore beltza aurpegi eta leporaino iristen da, baina gorputzaren zati horiek neguan zuri bihurtzen dira. Ale helduek moko indartsu eta kamutsa dute, azken herenean zeharkako zerrenda zuria eta gainaldean beste zerrenda bat dutela. Ale heldugabeengan, berriz, mokoa meheagoa da, ez da puntazorrotza eta erabat beltza da. Hegalek atzeko aldean ertz zuria dute, oso nabarmena hegaztia pausatuta dagoenean. Ziztu bizian hegan egiten du, indartsu eta azkar, beti uraren mailan eta galtzarbe zuriak erakutsiz. Urpean igeri eginda harrapatzen ditu arrainak, eta, horretarako, hegoen bultzadaz baliatzen da.

TAMAINA: luzera: 41 cm.

BIOLOGIA: Britainia handiko eta Bre-tainiako kostaldeko itsaslabarretan ugaltzen da, ugalketa kolonia handiak eratuz. Euskal Herrian udaberriko migrazioa urritik aurrera ikusiko dugu, baina negua aurrera joan ahala, nabariagoa da. Negua pasatzeko kanpoaldeko itsasbazterrek nahia-go ditu. Hegazti honen elikadura arrainetan oinarritzen denez, arrain-sarden kokapenaren arabera leku desberdinetara joko du.



Arrantzarako murgilketa ikusgarri eta luzeak burutzen ditu, gorputza bultzatzeko hankak eta hegoak erabiliz. Arriluzeko kaiko harrizko blokeen artean arrantzan aritzen denean jokabide hau erraz behatuko dugu. Izaera fidakorreko hegazti honek ez du aireratzeko zaletasunik erakusten, eta ontzirik edo jenderik hurbiltzekotan murgiltzea nahiago du. Hori dela eta, lehen, Abran eta Galea aurrean, ontzietatik tiro eginez hiltzen zuten, baina gaur egun, espezie babestua denez, ehizatze-ko teknika hau erabat debekatuta dago. Neguan pelagikoa da; hala ere, Martin arrunta baino sarriago hurbiltzen da kostaldera.

ELIKADURA: aski fidakorra da eta, hain zuzen askotan hurbiltzen da arrantza-portuetara; hauetatik hurbil aurkitzen dute beren janaria: arrain txiki eta moluskuak.

HABITATA: urte guztian ikus daiteke, neguan ugarriago bada ere; Bizkaiko Golkoko itsas labar aurrean bakarti irauten du orokorrean. Ez dira ugari gure kostaldeetan; hauetan itsas bazterre bultzatzen duten denboralak gertatzen direnean bakarrik azaltzen dira. Itsasertzeko kanpoaldeko eremuetan negua pasatzea nahiago du, nahiz eta noizean behin arrantza-portuetan eta industri portuetan ere agertu. Negutar bisitari arrunta kantauriar-atlantiar itsasal-deetan, Bizkaiko Golkoan urte guztian zehar ikus daiteke. Ikerketa-eremuan arrunta da, ugaria ez bada ere, eta ia urte osoan ikusten da. Itsasertzean ikusi izaten da maiz, gutxitan sartu izaten da paduretarantz.



LANPERNA MUSUA (*Fratercula artica*)

DESKRIBAPENA:

atlantikoan banatutako espezie honek onartutako hiru subespezie ditu eta Mendebaldeko Europako populazioak (Britainia Handia, Frantzia eta Eskandinaviako hegoaldekoak) *Fratercula artica grabae* subespeziekoak dira. Edozein urte-sasoitan nahasi ezineko altzidoa da, moko triangeluar handia duelako. Gaildea beltza du eta azpialdea zuria. Burua Europako gainerako altzidoena baino biribilduagoa du eta masail zuri handia (neguan grisaxka bihurtzen dena) ikusteen zaio.

Neguan iduneko ilun osoa duen Europako altzido bakarra da. Moko plaka gorri, hori eta estalia du, baina neguan tamaina eta kolorea galdu egiten dute eta grisaxka bihurtzen dira. Ale gazteek masaila are eta ilunagoa dute, baina moko txikiagoa eta kolore gutxiagoa.

Zitzu bizian hegan egiten du, oso azkar eta uraren mailan.



TAMAINA: 26-29 cm.

BIOLOGIA: itsaslabarrean maila baino gorago lurrean egiten du habia. Udazkenean eta neguan pelagikoa da, eta oso nekez ikusten da portuan pelagikoa da, eta oso nekez ikusten da portuan edo itsasbazterrean. Espezie hau eztei ondoko migrazioan besterik ez dela ikusten esan daiteke, hau da, urria eta abendua bitartean. Denboraldi horretatik kanpo urriagoa da, baina inoiz neguko hilabeteetan mugimendu garrantzitsuak egon daitezke. Udaberrian oso gutxitan sumatzen da.

Euskal Herrian hegazti migratzailea da; izan ere, behaketak Matxitxakotik ikusitako talde migratzaileenak baizik ez dira izan. Batzuetan talde ugariak azal daitezke. Oso nekez ikusten da itsasbazterrean, urak bazterrera ekarritako hildako aleak izan ezik.

ELIKADURA: arraina besterik ez du jaten.

Gainerako altzidoek bezala, urpean igeri eginda arrainak harrapatzen ditu.

HABITATA: Iberian, sarri agertzen dan negutar bisitaria dugu, arruntagoa kantauriar-atlantiar itsasaldeetan. Barrurago negutzeko daukan ekan-dua dala eta, azaroa eta otsaila artean hondartzetan bildutako, txori hil edo gaixoen gainean eginda daude aita-menik gehienak. Gehienetan, britainiar eta bretoi umatze-leku edo kolonietatik etorritako hegaztiak izaten dira.



ALIOTA ARTIKOA (*Gavia artica*)

EZAUGARRIAK: beste bi alioten tarteko tamaina du, baina itxuraz Aliota handiaren antz handiagoa duelako, inoiz harekin nahasteko arriskua dago.

Neguko lumajeak muga argi eta garbi dauka goiko aldearen (berun-gris uniformekoa da) eta behekoaren artean (hori oso zuri garbikoa da). Ale gazteen bizkarrean lumajea ez da hain uniformea. Igeri egiten duenean, oso era berezian saihetsetako atzeko aldean triangelu zuria erakusten du. Udan ale helduen lumadian bizkarreko xake-itxura eta buru eta lepo gris uniformeetako eztarri beltza nabarmentzen dira. Oso lepo eta buru sendoak ditu eta moko gris argi eta indartsua. Hegaz ari denean Aliota txikiaren antzekoa da, baina hegaldi indartsuagoa du. Lumajeko kolore-desberdintasuna dela-eta atentzioa ematen du.

TAMAINA: luzera. 51-61 cm. Hego luzera: 97-110 cm.

BIOLOGIA: batik bat aintzira handietan egiten du habia eta negua kostaldeko zonetan eta estuarioetan igarotzen du.



Banaketa holoartikoa du espezie honek. Habia egiteko lurralde nagusia Mendebaldeko European Eskandinavian du, eta neurri apalagoa Eskozian.

ELIKADURA: arrainez elikatzen da, hauek 50 metrotako sakonetaraino murgilduz itzelezko trebetasunez harrapatzen dituelarik. Murgiltzeko, ubarroien modura salto egin beharrean, modu zuzenean egiten du. Behin eta berriro murgiltzen ikus daiteke, batere uhinik sortu gabe, eta sartu-irten azkar horietan, uretatik kanpo burua soilik ateratzen duelarik igeri egiteko gai da, gero berriro ere urperatzeko.

HABITATA: espezie honetakoak gutxitan ikusi izan dira euskal itsasaldean. Gernikako itsasadarrean halakoren batzuk ikustea izan dugu, azaroaren bukaeratik urtarira arte. Ugaltokia Europako iparraldeko lakuetan, erreketan eta aintziretan dago, baina negua helterakoan gure kostaldeko ur gazietan topatuko dugu. Negutzeko, arrantza ugariko eta gutxi kutsatutako badiak, kaiak eta itsasadarrek gogoko ditu.



ALIOTA HANDIA (*Gavia immer*)

EZAUGARRIAK: Handia eta indartsua da. Neguan gehienbat luma zuria eta beltzak ditu, baina azken hori ez da Aliota artikoan bezain uniforme. Bi koloreen arteko muga hain garbia ez duelako ere bereizten da Aliota artikoarengandik.

Ale helduaren bizkarra gris ilun uniforme da, baina gazteak ezkatatsua du. Adin guztietan koilare-erdi iluna du lepoan.

Udan, ordea, lumajea berde ilun-ia beltz- bihurtzen da, bizkarra ezkatatsua eta marradun koilare duela.

Nabarmenak dira bere kopeta handia eta moko argi eta indartsua, zeina udan beltz bihurtzen baita. Flotazio-lerroa oso behean eta mokoa urarekiko paralelo duela igeri egiteko joera du. Hegan ari denean, bere gorputz handi eta koloreengatik Ubarroi handiaren ale gazteen antza du.

TAMAINA: luzera. 681-81 cm. Hego luzera: 140-



150 cm.

Pisua: 3-5-4,5 kg.

BIOLOGIA: aintzira handietan habia egiten du eta negua batez kostaldean igarotzen du.

Batez ere espezie neartikoa da, European populazio txikia duena. Islandian eta Svalbarden habia egiten du. European negua igarotzen duen populazioa, gainera Groenlandiatik eta Kanadako Artikotik etorritako hegaztiez osatutakoa da.

ELIKADURA: arrainez elikatzen da, hauek 50 metrotako sakonetaraino murgilduz itzelezko trebetasunez harrapatzen dituelarik. Murgiltzeko, ubarroi modura salto egin beharrean, modu zuzenean egiten du. Behin eta berriro murgiltzen ikus daiteke, batere uhinik sortu gabe, eta sartu-irten azkar horietan, uretatik kanpo burua soilik ateratzen duelarik igeri egiteko gai da, gero berriro ere urperatzeko.

HABITATA: txori gutxi batzuk, erregularitasunez negutzen dabe Euskal herriko itsasaldean. Abenduan eta urtarrean ikusi izaten dira sarrien, noizean behin, eta apirila arte, txoriren bat edo beste ikusten bada ere. Ugaltokia Europako iparraldeko lakuetan, erreketan eta aintziretan dago, baina negua heltzerakoan gure kostaldeko ur gazietan topatuko dugu. Negutzeko, arrantza ugariko eta gutxi kutsatutako badiak, kaiak eta itsasadarrak gogoko ditu.



ALIOTA TXIKIA (*Gavia stellata*)

DESKRIBAPENA: hegazti urtar hauek uretan ibiltzeko primeran moldatuta daude, baina lurlean oso baldarrak direnez gutxitan lehorreratzten dira. European topa daitezkeen lau aliotetatik txikiena dugu.

Oso buru fina duen ahatea ematen du, eta neguan kolore gris eta zuriz apaindutako lumajea erakusten du. Igeri egiterakoan, beste aliota eta murgiletatik bereizteko behatu beharreko ezaugarriak hurrengoak dira: burua tente mantentzen du, eta gorantz zertxobait kurbatutako moko finagoa gora begira darama. Antzeko tamaina duen aliota artikotik bereizten duten ezaugarri garrantzitsuenak pika zuririk apaindutako bizkar beltza eta flotazio-marrako orban zuri eza dira. Ale gazteak, helduengandik burua eta lepoa ilunagoak izategatik bereiz daitezke.

TAMAINA: luzera. 51-61 cm.

Hego luzera: 97-110 cm.

BIOLOGIA: Edozein tamainatako ur gezako masetan habia egiten du. Kostaldeko zonetan negua igarotzen



du eta inoiz aintziretan ere bai. Euskal Herrian hegazti negutarra da. Azaroaren erdialdean edo bukaeran agertzen hasten da, eta urtarilla edo otsaila arte geratu ohi da. Aipatutako lehenengo datetan, eta iparraldetik haize hotzeko ekaitz gogorrik badago, ohikoa baino hegazti-talde handiagoak ikus daitezke, gure lurraldean aldi batez pausatuta eta gero bideari ekiten diotelarik.

ELIKADURA: arrainez elikatzen da, hauek 50 metrotako sakonetaraino murgilduz itzelezko trebetasunez harrapatzen dituelarik. Murgiltzeko, ubarroi modura salto egin beharrean, modu zuzenean egiten du. Behin eta berriro murgiltzen ikus daiteke, batere uhinik sortu gabe, eta sartu-irten azkar horietan, uretatik kanpo burua soilik ateratzen duelarik igeri egiteko gai da, gero berriro ere urperatzeko.

HABITATA: ugaltokia Europako iparraldeko lakuetan, erreketan eta aintziretan dago, baina negua heltzerakoan gure kostaldeko ur gazietan topatuko dugu. Negutzeko, arrantza ugariko eta gutxi kutsatutako badiak, kaiak eta itsasadarrak gogoko ditu. Espezie honetako txoriren batzuk ikusi izan dira euskal itsasaldean. Grandio eta Belzunce banaketan aitatzen dabe Txingudi Bidaian ikusitatzat. Era berean, Bizkaian negutzen daben itsas-hegaztien errolda egitean txoriren batzuk ikusi izan dira. Negua Bizkaiko Golkora ematen du.



EIDER ARRUNTA

(*Somateria mollissima*)

EZAUGARRIAK: ahate murgilari honek itxura berezia du eta gorpuzkera zein tamaina handia ditu (basahatea baino handiagoak). Ugalketa-lumajea duenean arraren sabelaldea eta txopa beltzak dira eta bizkarra zuria, bularraldea izokin-kolorekoa, aurpegia zuria, garondoa berdea eta pileoa beltza. Emea erabat nabar jaspeztatua da eta arrak, eklipsean, emearen antza du, baina ilunagoa da eta zenbait tamainatako orban zuriak izaten ditu. Heldu gabeko arrak helduak bezalakoak dira, baina lumajea ez dute hain definitua. Moko indartsu eta zorrotza dute. Uretatik kanpo askotan pausatzten da.

TAMAINA: 50-71 cm.

BIOLOGIA: itsasoari oso lotuta dagoen espeziea da eta itsasoan batez ere moluskuak, krustazeoak eta landareak janda bizi da.

Lurrean habia egiten du.

Azken urteotan, Euskal Herrian, urritu egin bada ere, batez ere iraila eta martxoa bitartean ikus daiteke. Uda osoa iga-

ro izan dute ale gazte batzuek.

Laurogeita hamarreko hamarkadan gutxi batzuek igarotzen zuten negua, baina orain batek ere ez.

Eremu holoartiko osoan sei subespezie daude banatuta. Argi eta garbi ugaltzen ari diren Mendebaldeko Europako populazioak arraza izendatukoak dira.

ELIKADURA: krustazeoz eta moluskuz elikatzen da.



AHATEBELTZ ARRUNTA

(*Melanitta nigra*)

DESKRIBAPENA: tamaina handiko ahate itsastar honek itxura potxoloa agertzen du, eta arraren lumajea erabat beltza da. Emea arre iluna da, eta masail argiak erakusten ditu. Ahatebeltz hegazturiarengandik bereizteko, espezie honetako arrek eta emeek agertzen dituzten ondoko ezaugarriak hartu behar dira kontutan: arrak, hegoetan eta begiaren azpian orban zuriak dauzka; emearen lumajea arre iluna bada ere, buruan, kolore zuriko bi orban dauzka, eta hegoetan, arraren moduko orban bereizgarriak.

TAMAINA: luzera: 51 cm.
Hego luzera: 84 cm.

BIOLOGIA: abuztuaren hasieran heltzen da. Ale kopururik altuena azaroaren lehenengo hamabostaldian beha daiteke. Ahatebeltz hegazturiak (*Melitta fusca*) kaiak, padurak eta bestelako kostaldeko eremuak gogoko dituen bitartean, ahatebeltzak itsas zabala nahiago du. Aspaldian, bai ahate beltzak

ELIKADURA: molusku bibalbizioz, krustazeo txikiz, arrainen arrautzez eta itsasoko harrez elikatzen da.

Hauek harrapatzeko, murgilarien taldeko ahate honek, 3-10 metroko sakonerarainoko murgilketa trebeak burutzen ditu; ur azpian bi minutu ere eman ditzake.

HABITATA: espezieak Holoartikoan ur gezako masetan eta tundra-ko ibaietan habia egiten du, baina ugalketa-garaitik kanpo erabat itsastarra da. Mendebaldeko Europako itsasbazter eta estuarioetan ibili ohi da. Ingurune itsastarrean bizi da, itsas zabalean. Ekaitz gogorrek kostaldera bultzatzen dutenean, kaietan, paduran eta Abran bertan babestuko da.



ZERRA ERTAINA

(*Mergus serrator*)

EZAUGARRIAK: anadido murgilari lerdena, sexu-dimorfismo nabaria duena. Eztei-lumajea duenean arra batez ere grisa da, bularralde nabarra du, lepo zuria eta buru berdea. Emeak gorputz grisa du eta buru marroia, bien arteko bereizketak ongi definitutakoa ez bada ere. Eklipsean arrak emearen antza du. Bi sexuetako aleek txatal karratu eta zuria dute hegoan eta gandar ikusgarria ere bai buru gainean. Moko gorria da, oso zorrotza eta luzea, arrainak harrapatzeko egokia. Hegaldi burrunbatsua, oso azkarra eta, gehienetan, uraren mailakoa du, Murgil handiaren oso antzekoa. Igeri duenean, burua atzerantz zerbait inklinaturik edukitzen du. Zerra handia baino txikiagoa eta arinagoa den anadido hau gure zonan nekez ikusten da.

TAMAINA: luzera: 51 cm.
Hego luzera: 84 cm.

BIOLOGIA: ipar-hemisferioko zona hotzenetan oso hedatutako espeziea da. Ur gezako masen inguruan dauden zuhaitzetako zuloetan egiten du habia, baina neguan itsasbazterrean joaten da.



HABITATA: Europako iparraldean dauden kostaldeko biztanlea da; gure kostaldeetan sarritan aurkitzen dira neguan, baina kopuru txikian. Hegazti itsastarra da batez ere, nahiz eta askotan sartu estuariotan.

ELIKADURA: arrainez elikatzen dira gehienbat; murgilaldi luze baten ondoren harrapatzen ditu bere harrapakin labankorrek eta horretarako bere moko espezializatuak baliatzen da: gako batez bukatzen da eta hortz zorrotzez hornituak daude bere ertzak. Minutu t,erdi baino denbora gehiago pasa dezake murgildurik.

ANTZARA HANKAGORRITZA (*Anser anser*)

DESKRIBAPENA: antzar hau migrazio garaian erraz ikus daiteke, V itxura hartzen duten saldo handitan gure herritik hegan egiten duenean. Inguru honetatik pasatzen diren antzar grisetatik, antzar hankagorritza handiena da; hegan ikusiz gero, hegaleen aurrealde argia duelako ezagutuko dugu. Bi arraza desberdin daude: mendebaldekoak, moko horia eta hanka arrosak ditu, eta ekialdekoak, moko arrosaduna dutenak. Hau ez da horrenbestetan ikusten.

Europako antzara handiena da, Antzara hankahori urria baino handixeagoa besterik ez bada ere. Azken horrengandik bereizten duena itxura orokor argiagoa eta sendoagoa da.

Eurasian oso zabalduak dira espezieak. Dauden bi subespezieetatik, argi eta garbi urritzen ari den ekialdekoa baino askoz ere ugariagoa da mendebaldekoa. Mendebaldeko European gehien den subespezieak laranja-koloreko moko eta hankak ditu.

TAMAINA: luzera: 75-82 cm. Hego luzera: 150-160 cm.

BIOLOGIA: hainbat tamainatako ur-masen inguruan habia egiten du, eta ez dio axolarik ura geza, gazia edo gazikara izan, baina betiere oso zona irekia izan behar du. Udazkeneko pase ikusgarriak abuztuan hasi eta abendura arte ikus daitezke, baina sarri urrian eta azaroan ikusiko ditugu. Udazkenean migratzen duten hegaztiak, bi bide nagusi era-



biltzen dituzte, bata Pirinioetako mendebaldetik, eta bestea, Bizkaiko Golkotik eta Euskal Herriko kostaldetik diana. Uda-berrian migratzen dutenez, berriz, Pirinioetatik pasatzen dira gehien bat, itsasertzetik urrun samar. Batez ere Eskandinaviatik eta Baltiko itsasoa inguratzen duten herrialdeetatik datoz, eta ia gehienak anser subespeziekoak dira.

ELIKADURA: moko sendoak ertz koskadunak agertzen ditu, antzarren elikagai diren kimu eta landareak ebaki ahal izateko. Uretan, haziak eta beste zenbait landare jan ditzakete. Norbait beraien atzetik badabil, ohiturak aldatzen dituzte: gauez larreetara hurbiltzen dira bertan elikatzeke, eta eguna ingurune hezeetan atseden hartzen ematen dute.

HABITATA: lehen saldoak urrian azaltzen dira, baina migrazioa goi-maila azaroan izaten da.

BRANTA MUSUBELTZA (*Branta bernicla*)

EZAUGARRIAK: antzara potxolo honek batez ere kolore-tonu ilunak ditu. Subespezie guztiek lepoa eta buru beltzak dituzte, bizkar marroi-grisaxka eta txopa zuria. Mendebaldeko European gehien dabilen subespezieak, Branta branta bernicla izenekoak, saiheutsak ilunak ditu. Euskal Herrian Branta branta hrota subespeziea ere sumatzen da, baina horrek saiheuts argiak ditu. Ale helduek lepoan, buruaren azpian, hain zuzen, marka zuria nabariak dituzte, baina ale gazteek ez. Moko oso motza da eta hanke bezalaxe kolore beltza du. Hegan ari denean, erabat beltza dela ematen du.

TAMAINA: 56-61 cm.

BIOLOGIA: espezie honek banaketa holoartikoa du eta tundra itsasbazterrean egiten du habia. Hala ere, nahiago ditu estuarioak negua igarotzeko.

Espezie hau ia urtero azaltzen da, neguan azaldu ere. Azaroa otsaila bitartean ikusten dira talde handienak. Gehienetan ale solteak edo talde txikiak izaten dira, baina noizbehinka ia berrogeita hamar aleko taldeak ere erregistratu izan dira.



Kopuru handi batek Mendebaldeko European igarotzen du negua eta Bizkaiko itsasoaren ertzean benetan gutxi izaten dira. Euskal Herrian lohizko lautadan besterik ez da ibiltzen, hau da, Busturia eta Kanala bitartean, non beste anatido-espezie batzuekin egoten baita.

ELIKADURA: landareez baino elikatzen ez den hegazti honek Zoostera sp. du jateko gogokoena, eta paduretako landare hori urritzen denean, espezieak kalte handia izan dezake.

AHATE TXISTULARIA (*Anas penelope*)

EZAUGARRIAK: tamaina ertaineko ahatea. Sexu-dimorfismo nabarmena duena. Emea arre-gorrixka da eta ar helduak gorputza grisa du, baina txopa beltza, bularra ardo-kolorekoa eta burua nabar-gorrixka, kopetan ezkututxo hori deigarria duela.

Bi sexuetako aleek sabelalde zurikak dute eta ikusi egiten zaie hegazdoazenean edo uretara goitik behe-ra erorita elikatzen ari direnean. Hegan ari denean, arrak orban zurikusgarriak ditu hegoetako estalimutan, zeinak igeri egiten dutenean ere nabarmenak baitira.

Eclipseko lumajea duenean arrak emearen antza du, baina oro har tonu gorritzagoa ikusten zaio. Moko txikia eta kolore gris argikoa da. Ar gazteei helduen lumadirako aldaketa udazkenean hasten zaie eta behin betiko lumajea neguan zehar lortzen dute. Talde trinkoetan hegaz azkar egiten du.

Ur-azaleko ahateetan itsastarren dugu; halaber, nahiko sarritan aurkitzen da barneko aintzira eta paduretatan. Ahate honek habiarik egiten ez duenez.

Penintsula Iberikoan, udazkenean eta neguan bakarrik beha dezakegu, hegazti-aldra hori eta trinkotan, badia eta estuarioetako ur-gaiean atsedenaldian daudenean. Neguko lehen hotzekin, eta beren Europa Erdiko ugaltokietatik, Guadalquivirko paduretako negu-tokietara bidaiatzen direnean erregulariki gelditzen dira gure kostaldeetan. Ur azpian janaria harrapatzeko modu berezi bat dauka-



te, gorputz erdia murgilduz eta ur-azalearen gainetik ipurtaldea agertuz.

TAMAINA: luzera: 46 cm. Hego-luzera: 81 cm.

BIOLOGIA: Eurasiako iparralde osoan sakonera txikiko ur gezako

masetan habia egiten du eta batez ere kostaldeko zonetan negua igarotzen du, baina barneragoko lurraldeetan ere ikusi izan da. Bikoteak goiz samar lumaberritzen dira, urtarilak aldera, eta lehenengo estaldurak burutzen dituzte. Habia lurtean kokatzen du, urmael zabaletatik hurbil dagoen landaredi urtar zerratuan. 7-10 arrautza erruten ditu, eta eme mimetikoak 28 egunetan zehar berotzen ditu. Ahatekume guztiak bezala, ahate txistulariarenak ihesleak dira, hau da, jaio eta ordu gutxi barru habia utzi egite dute.

ELIKADURA: ura iragaziaz elikatzen dira, landarezko eta animaliazko elikagai-izpi txikiak bilduz.

HABITATA: ingurune heze, ureztaketarako urtegi, padura eta abarretan. Gernikako itsasadarrean, arrunta izaten da Irailaren azken aldetik Martxoaren erdialderaino, udagoieneko igaraldian batez be.



ZERTZETA ARRUNTA

(*Anas crecca*)

DESKRIBAPENA: Euskal Herrian beha daitekeen ahaterik txikiena da. Espezie honetan ere dimorfismo sexuala oso nabaria da. Arraren lumajea askoz ikusgarriagoa da: burua gaztainakara da, eta karatula-itxurako orban berde distiratsua garondoraino zabaltzen da; gorputzean, bularralde arre pikardatua eta bizkar eta albo grisak agertzen ditu. Emea, berriz, arrea da, eta bizkarra aldean kasketa ilunak ditu. Pausatzen direnean gorputz gris txikia, buru iluna eta buztaneko mutur arre argia ikusita, urrunetik ezagutuko ditugu. Hegan doanean, ispilua zabaldu egiten da hegoetan bi marra metal-berde eratuz.

Europako ahateetan txikiena da. Bi sexuetakoek ispilu berdea dute eta hegaz ari direnean hobeto ikusten zaie. Bizkor egiten dute hegan, talde trinkoetan gehienetan, zangaluze-saldeen antzera.

Eremu holoartikoan oso zabaldua dago eta hiru subespezie deskribatu zaizkio. Europakoak subespezie izendatukoak dira, baina urtero ikusten dira Amerikako subespezieko ale asko ere.

TAMAINA: luzera: 36 cm. Hego luzera: 59-61 cm. Pisua: 240-350 g.



BIOLOGIA: ur gezako sakonera txikiko masetan habia egiten du eta horietan edo masa gazikaretan igarotzen du negua. Urtero euskal kostaldean negutzen du. Irailaren hasieratik martxora arte ikus daiteke. Migrazio mailakatu burutu ohi du, hau da, negu-tokira heldu arte, bidean

zeharkatzen dituen latitude desberdinetan, iraupen aldakorreko etenaldiak burutzen ditu.

Jarduera gautara agertzen du, eta egunean zehar ikuspen handiko leku babestuetan atsedena hartzen eta lumak apaintzen aritzen da. Eztei-arrandiak basahatearen oso antzekoak dira eta martxoan, negua pasatzen egondako beste generokide taldeetatik aldendu ondoren, egiten dira ugaltzeko. Lehorrean egiten dute beren habia, baina, txitatze-garaian, arrak ez du emea uzten, basahateak egiten duen moduan, arrautzak kokatu arte.

ELIKADURA: lokatza filtratuz harrapatutako animalia txikiz eta landarez elikatzen da.

HABITATA: neguan, euskal kostaldera datorrenean, ingurune hezeak, padurak eta ureztatutako zelaiak gogoko ditu, Abra bezalako kai handietan topa badezakegu ere.



UDA ZERTZETA

(*Anas querquedula*)

EZAUGARRIAK: arra nahastezina da eta bere lumajean buru eta lepo marroia nabarmentzen dira; baita bekain zuria ere. Luma eskapularrak deigarriak ditu eta askotan kolore griseko saihetsetan zertxobait zintzilik izaten ditu. Emea kolorez nabarra da, baina sabelalde, eztarria eta aurpegia argiagoak ditu eta begiaren atzean zerrenda ilunagoa. Ezaugarri horri esker, Zertzeta arruntarengatik bereiz daiteke. Eklipsean arrak emeen oso antzekoak dira. Hegaz ari direnean, hego grisaxkak gutxi nabari zaien ispilu eta guzti ikusten zaizkie. Moko sendoa eta erabat gris dute.

TAMAINA: luzera: 38 cm.

Hego luzera: 63 cm..

BIOLOGIA: ur gezako hezeguneetan habia egiten du, baina oso sakonera txikiko masak ditu gogokoena. Neguan zona gazikarak erabiltzen ditu. Paduretan ehiztariantzat oso hegazti estimatua da ahate txiki hau. Martxo eta apirileko zeruetan sarritan aurkitzen ditugu bere hegalaria azkarra eta eboluzio ikusgarriak eginez, Europako umatze-tokietara abiatzeko prestatzen ari direnean, zenbait ugaltzeko, hala ere, noizbehinka umatzen da Espainiako Hegoaldean. Jarduera gautara agertzen du, eta egunean zehar ikuspen handiko leku babestuetan atsedena hartzen eta lumak apaintzen aritzen da.

Batzuetan anatidoak harraparien harrapakin izaten dira.

ELIKADURA: paduretan aurkitzen dituzten puja eta ur-lan-



darek elikatzen dira; halaber, kakalardo eta soinberaz.

HABITATA: Iberiar Penintsulan udaberriko igaroaldien barruan ageri izaten da gehien bat (otsaila-apirila) eta baita udagoienetakoetan be (abuztua-urria). Oso noizean behineko negutarrak. Fernandez de Montoyak Arabako intziretan martxo eta apirila alderantz gutxi batzuk ikusiak izana aitatzen du.

Berreskuratu egiten dira baten batzuk Iparraldeko euskal itsasaldean eta Gipuzkoakoan, nahiz eta espezie bitxia izan behar berau Atlantiar Euskal Herrian, zein gutxitan ikusi izaten aintzat hartu izanez gero.

Neguan, euskal kostaldera datorrenean, ingurune hezeak, padurak eta ureztatutako zelaiak gogoko ditu.

Europako populazioek negupasa Saharatik hegoaldeko zerrendan egiten dute.

PAITA ARRUNTA

(*Tadorna tadorna*)

EZAUGARRIAK: gehienbat lumaje zuriko aha-te hau beste edozeinekin nahastezina da. Bere egiturak antzara gehiago gogorarazten du. Bai emea eta bai arra ia erabat zuriak dira, burua eta lehen eta bigarren lumak izan ezik. Horrez gain, bularrean hur-koloreko zerrenda marroia dute. Bi sexuetako aleek moko gorria dute, baina arrak mokoaren gainaldean kolore bereko protuberantzia du.

Emea txikixeagoa da. Hegaldi indartsua du, beste ahateek baino dezentez motelagoa. Ale gazteek helduek baino tonu motelagoak dituzte, nahiz eta diseinu bera izan.

TAMAINA: 58-71 cm.

BIOLOGIA: ur gazi eta gazikaren masak nahiago ditu, bai habia egiteko eta bai negua igarotzeko.

Lurrean egindako zuloetan egiten du habia.

ELIKADURA: ornogabe txikiak eta sakonera txikiko ureta-

ko landareak jaten ditu.

HABITATA: espeziea urtero azaltzen da. Euskal Herrian, baina talde txikiak etortzen dira, gehienak azaroa eta martxo bitartean.



BASAHATEA (*Anas platyrhynchos*)

DESKRIBAPENA: ahate basatirik zabalduena eta arruntena da. Dimorfismo sexual nabarmena agertzen du. Arren buruan eta saman isaldez beteriko kolore berde distiratsua zabaltzen da. Iduneko zuriak bularraren gainalde marroi-gorrixka mugatzen du. Beherago tonu zuri zikina agertzen du, eta bizkaralde griseko atzeko muturra beltza da. Emea, berriz orban zuriz zipriztindutako kolore arrez jantzita dago.

Bai arrak eta bai emeak beste ahate-enganetik bereizten dituen ispilu urdin deigarria dute, eta hegana egiterakoan, ispilu hori hegoetako zerrenda urdinak eratuz zabaltzen da.

TAMAINA: luzera: 45-58 cm.
Hego luzera: 80-95 cm

BIOLOGIA: neguko hazkundera urteko eguraldiaren arabera izango da. Bikoteak goiz samar lumaberritzen dira, urtarilak aldera, eta lehenengo estaldurak burutzen dituzte. Basahate ar askoren artean eme bakar bat gorteiatzen dute. Arrek lepo-mugimendu eta jarrera-sail bat egiten dute, bere ispilu distiratsu more-urdira erakutsiaz; bitartean, emeak ikusle soil moduan egoten dira. Azken finean, emea da bere ezkontidea aukeratzeko duena, berarekin gero parekatuaz. Habia lurrean kokatzen du, urmael zabaletatik hurbil dagoen landaredi urtar zerratuan. 8-16 arrautza erruten ditu,



eta eme mimetikoak 28 egunetan zehar berotzen ditu. Amak, txitak jaio eta berehala, uretara bideratzen ditu, eta arra berriro ere lumaberritzen den bitartean, ahatetxoak emearekin geratuko dira. Handik 45 egunetara hegana egiteko gai izango dira. Ahateek hega-luma guztiak batera janzkile

berritzen dituzte; horregatik denboraldi batean ezin izaten dute hegana egin.

Bertan jaio diren basahateek sedentario modura jokatzeko dute, nahiz eta ugaltokietako ur izoztuetan elikagairik topatzen ez duen ale negutar ugari etorri, iparraldeko.

Hegazti migratzaile hauen gehien-goak bere bidea jarraitzen du, baina banaka batzuk atseden hartzeko edo baita negutzeko ere pausatzen dira.

ELIKADURA: ura iragaziaz elikatzen dira, landarezko eta animaliazko elikagai-izpi txikiak bilduz.

HABITATA: landaredi urtar ugariz inguratutako ingurune heze, ureztaketarako urtegi, padura eta abarretan egiten du habia. Neguan zehar bestelako habitatean ere ikus daiteke, adibidez kaietan eta Abra bezalako itsasadarretan.



ITSAS MIKA (*Haematopus ostralegus*)

EZAUGARRIAK: Ale gazteek bizkarra nabarragoa dute eta, helduek neguan beza-la, kokotsean zerrenda zuria ere bai. Hankak gorri argiak dituzte, baina begiak eta moko gorri laranjatuak. Moko luzearen punta horizta da helduengan eta iluna gazteengan, baina askotan zikindu egiten zaie elikatzen direnean. Hegana ari direnean, hegal-zerrenda zabala eta ipurtxuntxur zuri-zuriak ikusten zaizkie. Txistu berezi eta ozena entzuten zaie.

Eurasia osoan eta Zeelanda Berrian banatuta dago. Munduan lau subespezie deskribatu dira. Mendebaldeko Europako subespezieak populazio garrantzitsuak ditu Britainia Handian eta Herbehereetan.

Hegazti honek, buru aldean, garondoa eta bizkaraldean lumaje beltz ikusgarri eta bereizgarria du. Beheko aldean, berriz, zuria da. Hankek, begiko eraztunak eta moko luzeak kolore gorri bizia dute. Gazteek, bular beltza marra zuriz apainduta agertzen dute. Ezinezkoa da espezie hau besteekin nahastea.

TAMAINA: luzera: 51 cm.

Hego luzera: 84 cm.

BIOLOGIA: erabat itsasbazterrekoa da, bai habia egiten duenean eta bai negupasan. Gaur egun, gure kostaldean paseko espeziea da batik bat. Udazkeneko pasea abuztuak eta azaroak bitartean izaten da (batez ere irailean), eta udaberrikoa, berriz, martxoak eta maiatzak bitartean. Oso izaera bizia du, eta hondartzetan eta kaletan zehar urrats txiki eta azkarrak emanez ibiltzen da. Arriskuren bat sumatzen duenean, hegoak gogor astinduz



hegan alde egiten du, zertxobait aurrerago berriro pausatzeko.

ELIKADURA: lapaz, datilez, eta muskuiluz elikatzen da batez ere, baina poliketoak eta beste zenbait ornogabe ere jango ditu.

Molusken maskorra mokoarekin apurtzeko gai da, eta harean edo buztinean ezinezkoa bazaio, alde gogorragoetara daramatza.

Elikagaiak mokoarekin irekitzen dituen molusku bibalbioak dira eta horregatik ibiltzen da espezie hau etengabe mare-arteke zabalgunen, hareatza edo lohi-lautadetan.

HABITATA: itsasertzean bizi da, eta batez ere hondartzetan eta estuarioetan ibiltzen da.

Hegazti hau ikusteko, irailak aldera hondartzetatik eta itsasertzeko kaletatik ibiltzea komeni da.

ABOZETA ARRUNTA (*Recurvirostra avosetta*)

EZAUGARRIAK: hegazti lirain eta lerdina da, diseinu zuribeltz bereizgarria duena. Hegana ari denean deigarriagoa da, nahastezina. Zerrenda beltzak ditu hegoetan eta txano beltz handia ere bai. Gainerakoa zuri-zuria da. Ale gazteek lumajea ez dute hain definitua eta kolore beltzaren ordezu tonu nabarrak dituzte. Oso moko deigarria du, muturrean gorantz oso kurbatua. Hanka luze eta urdinxkak ditu.

TAMAINA: 42-46 cm.

BIOLOGIA: Europan, Asian eta Afrikako lurralde zabaletan dago hedatuta. Ur gazi edo gazikarako masen ertzetan habia egiten du, elikatzeko sakonera txikiko urak badaude. Oso talde trinkoak osatzen dituzte eta zangaluzeko gehienak baino maizago igeri egiten dute.

ELIKADURA: oso sakonera txikiko uretan edo lokaztietan elikatzen da, burua alde batera eta bestera mugituz hondoa bahetuta harrapatzen dituen krustazeo eta ornogabe txikiak



janda.

HABITATA: mendebaldeko Europako populazio nagusiak Espainiako Mediterraneo aldeko isurialdean, Danimarkan eta Herbehereetan dauden Azken bi lurraldeetakoak dira Euskal Herrian sumatzen diren aleak.

Euskal Herrian eztei ondoko migrazioan egoten da (abuztua eta azaroa bitartean). Orduan maiz ikusten dira dozenaka aleko talde trinkoak

TXIRRITXO TXIKIA

(*Charadrius dubius*)

DESKRIBAPENA: kolore arre-lurkara ageri du bizkaraldean; zerrenda beltz bat du paparraldean, sorbalden aldean mehe-agoa dena, eta idunek zuri bat ere badauka. Hego arreak ditu. Helduek neguan eta gazteek urte osoan aurpegiko diseinua, marroi-kolorekoa, ez dute hain definitua. Ale gazteek bizkarra ezkatatsua izaten dute. Mokoia erabat beltza eta arina da, eta hankak haragi-kolorekoak dira, inoiz ere ez beltzak edo horiak. Hegan doala, hegaz-zerrendarik ez duten hego erabat lisoak eta kolore ilunean amaitzen den buztana erakusten ditu. Nidifugoak diren txitek, azpialdea zuria dute eta gainaldea marroi argia, orban ilun eta idunek nabarmenarekin.

TAMAINA: luzera: 16-20 cm.

BIOLOGIA: Eurasian eta Afrikako iparraldean habiagile gisa oso hedatuta dago. Onartutako hiru subespezieetan European ugaltzen direnak *Charadrius dubius curonicus* izenekoak dira eta negua Saharak hegoaldera igarotzen dute. Migrazio-garaian, kostaldean eta estuario-eremuetan ibili ohi da. Ibilera bizkor eta arina ageri ohi du ohiko joan-etorrietan. Bakar-ka nahiz bikotean bizi ohi da; migrazio-garaian izan ezik, talde txikietan biltzen baita orduan. Lurrean egiten du habia; ozta-ozta tapizatzen dio barrualdea, eta sakonune txiki batean kokatzen du, legar edo harribil artean. Eskuarki errunaldi bakarra dagokio urtean, nahiz eta tar-tek bi ere izan; lau arrautza erruten ditu aldi bakoitze-



an. Urria da Euskal Herrian dauden bikote ugaltzaileen kopurua; ez da izango 25etik gorakoa. Populazio horrek gorabeherak izan ditzake, sarritan, habiagintzarako hautatutako tokien behin-behinekotasunak eraginda. Ingurunearen aldaketa da txirritxo txikien populazioen atzerakadaren eragile nagusia. Habiagintzarako egoki diren makina bat

leku suntsitzen dituzte, halaber: hezeguneen lehorketak; ubideraketek; ur-bazterren garbiketak eta ur-erretenen dragatzeak ere.

ELIKADURA: lupetzan edo harri artean harrapatutako artropodoak, moluskuak, zizareak eta bestelako ornoga-beak ditu elikagai.

HABITATA: honako lekuak aukeratu ohi ditu habitat gisa: ibaien erdialdeko nahiz behealdeko ur-bazterrak, harribilezko eremu harritsuak ageri dituztenak; urtegien bazterrak, landaredi urriko eremuetakoak; eta, ingurune antropogenoak, sakonune hareatsuak eta legartzak kasu, estuarioetatik edo hezeguneetatik hurbil daudenak batik bat. Paleo-arktikokoan banaketa-eremu zabala duen espeziea da. Euskal Herrian urria da, eta toki jakin batzuetara baino ez da mugatzen; migratzaile udatiar modura jokatzeko du gure lurraldean.



TXIRRITXO HANDIA

(*Charadrius hiaticula*)

DESKRIBAPENA: txirritxoak, padura eta hondartzetako harea eta buztinaren artean hegaldi azkarrak burutzen ikus ditzakegun tamaina txikiko zangaluzeko urduriak dira. Orokorrean, guztiek sabelalde zuria, eta bizkaralde marroia agertzen dute, baina txirritxo-motak desberdintzeko, mokoaren eta hanken koloreari, eta buruko, bularreko eta hegoetako marka bereizgarriari begiratu behar diegu. Txirritxo handiak, hegan egiten duenean, hegoetako zerrenda zuria erakusten ditu, eta pausatuta dagoenean, lasaitasunez begiratzeko gero, bekoki zuria, hanka eta moko horiak eta bularreko zerrenda osoa ikusi ahal izango ditugu.

Ale gazteek aurpegiko diseinua gutxiago definitutakoa eta tonu marroikoa dute. Bizkar ezkatatsua, moko beltza eta haragi-koloreko hankak dituzte. Hegan ari denean, hegaz-zerrenda zuria ikusten zaie eta erabat ziriz azpildutako isatsa ere bai.

TAMAINA: luzera: 18 cm.

BIOLOGIA: ia erabat itsasbazterreko hegaztia da eta batez ere Itsaso Artikoaren ertzean ugaltzen da Eurasian, Groenlandian eta Kanadan,



hegoaldean Frantziako kostalderaino iristen da.

Hegoaldeko populazioak *Charadrius hiaticula hiaticula* subespeziekoak dira -handiagoak eta argiagoak- eta gainerakoak *Charadrius hiaticula tundrae* subespeziekoak.

Txirritxo handiak, txirritxo hanka beltzak bezala, gure lurraldean pasatzen du negua, eta gainera, txirritxorik ugariena da. Txirritxo txikia, ordea, udan eta paseko garaian bestetik ez dugu ikusiko. Txurlita abuztuan heltzen hasten da, eta urrira arte etortzen jarraituko du. Udaberriko pasea martxoaren erdialdean hasi eta uztailearen hasierara arte luzatzen da. Moko laburra duenez, ezin ditu buztinean dauden animaliak harrapatu, azalean egon ezik.

Hori dela eta, aingira-belarrez estalitako haitzetan eta eremu hareatsuetan arituko da, bertan, ornogabe-mota ugari dagoenez, ez du sakonera handian bilatzen ibili beharrik. Hondartzetan, batez ere, taldeka ikusiko dugu, eta kala arrokatsuetan, berriz, banaka edo bikoteka topatzea errazagoa da.

ELIKADURA: harrez eta bestelako ornogabez elikatzen da.

HABITATA: negutzeko, estuarioak eta padurak aukeratzen ditu, nahiz eta hondartzetan eta hareatzetan ere aurkituko dugun. Euskal Herriko kala harritsuak eta itsasertz arrokatuak ere gogoko ditu, aingira belarrez estalitako haitz handiak, batez ere.



TXIRRITXO HANKABELTZA

(*Charadrius alexandrinus*)

DESKRIBAPENA: tamaina txikiko hegazti zango-luzea da, 16 cm luze izan daitekeena ozta-ozta. Tonu arreak ageri ditu bizkarraldean; orban txiki bat dauka paparraren alde banatara eta iduneko zuri bat. Begi-eraztun horia dauka. Hego arreak ditu, zerrenda estu eta zuri batekin; isatsaren ertzak ere zuriak ditu. Moko eta hanka, berriz, beltzak. Kontinente guztietan, Ozeanian izan ezik, oso hedatuta dago. Bost subespezie deskribatu dira; Europako populazioak arraza izendatukoak dira.

TAMAINA: luzera: 14-16 cm.

BIOLOGIA: zona irekietan (hareatzatan) egoten da, bai itsasbazterrean eta bai barnealdean. Migrazio-garaian kostaldean eta estuarioetan ibili ohi da. Ibilera bereizgarria du; bizkor eta arin ibili ohi da batetik bestera. Ohitura bakartiak dagozkio, migrazio-garaian izan ezik, orduan talde txikietan biltzen baita. Lurrean egiten du habia eta barrualdea apenas tapizatzen dion. Dunen eremuetan, edota legartzetako edo harribilen eremuetako sakonune txikiren batean egiten du habia. Urtean errunaldi bakarria dagokio -tarteka bi ere izan ditzake eta lau arrautza erruten ditu orduan. Populazio negutarra oso urria izan ohi da, tokian tokiko agerpen bakanak,



dozenaren bat banakokoak gehienera jota. Iberiako Penintsulako populazio negutarra, aldiz, dezente handia da, Europa mendebaldeko populazioaren % 85a. Espezia atzerakada nabarmena jasaten ari da Europan; Penintsulan, ordea, bere horretan eusten zaio aleen kopuruari, salbuespenak salbuespen. Txirritxo hankabeltzen populazioek migrazio-garaian izaten dituzten gorabeherei egotzi behar zaie, nagusiki, pairatzen ari diren atzerakadaren arrazoi nagusia. Horrez gain, aipagarria da euren habitatak eskuarki izandako aldaketa: atzerakada horren eragile garrantzitsu baitira, adibidez, habitat-azaleraren galera handiak eta horietako bizi-baldintzen ezari-ezariango narriadura.

ELIKADURA: ondokoak ditu elikagai: artropodoak, moluskuak, zizareak, eta harea edo istil artean harrapatutako beste hainbat ornogabe.

HABITATA: itsasaldean bizi da, hondartza hareatsu eta istiltsuen eremuetan, padura eta gatzagetan, eta baita barrualdeko aintzira gazietan ere. Euskal Herrian kostaldean bakarrik ageri da, eta noizean behin baino ez. Jokatibidez, espezia migratzaile udatiarra da, negutarra baino areago. Espezia hau batik bat eztei ondoko migrazioan ikusten da (abuztua eta urria bitartean) oso ugariak ez diren taldeetan (gehienez hamar alekoetan).



URRE-TXIKI ARRUNTA

(*Pluvialis apricaria*)

EZAUGARRIAK: udan bularra, aurpegia eta sabelalde beltzak ditu, baina neguan alde hauek argi bihurtzen dira. Bizkarra iluna da eta urre kolorez ziprztinduta dago. Txirri grisarekin nahas daiteke (*Pluvialis squatarla*) baina honen luma-jea grisa da, eta hegan egiten duenean, besapeko orban beltzak erakusten ditu. Honetaz gain, urre txirriaren ipurtxuntxurra iluna den bitartean, txirri grisarena zuria da. Neguan uniformeki urre-kolore berdexkakoa izaten da, sabelaldera apurka argiagoa izanik. Hegoen barnealdea eta galtzarbea zuriak dira. Moko beltza dute, oso motza zuriak dira. Moko beltza dute, oso motza, eta hegan zuzen eta indartsu joaten direla ikusten da.

HABITATA: urre-txirriak itsasbazterrak eta padurak baino landa eta ibarrak nahiago dituen zangaluze bakarria da. Neguan, landazabaleko larre eta zelai istilduetan bizi da. Espezia paleartikoa da eta Islandiatik Errusiako Artikoraino ugaltzen da. Bere banaketaren muga Alemanian du. Tundran egiten du habia, mendiko eremu eta larreetan. Barnealdeko zona irekietan (belardi, soro eta abarretan)



eta ia Europako Mendebal osoko estuarioetan igarotzen du negua.

TAMAINA: luzera: 28 cm.

BIOLOGIA: udazkeneko pasea urrian eta azaroan gertatzen da, eta udaberrikoa otsailean edo martxoan. Espezia erratiko modura jokatzen du, eta paseko ale ugari samar aurki badaiteke ere, bertan negutzen dutenak urriak dira. Hala ere, udalerrian negutu duten ale banaka batzuen datuak daude. Duela zenbait urtera arte ehizarako espezia zenez, presio handia jasan du.

Legiak babestu zuenetik zenbait urte pasatu dira, baina oraindik ere ehiztariak apeuz baliatzen dira urre-txirriak erakartzeko, eta ikusi ahala tirokatzen dute. Hegaberekin (*Vanellus vanellus*) batera migratu ohi du.

ELIKADURA: harrez eta bestelako ornogabez elikatzen da. Horiek harrapatzeko adi eta geldi geratzen da, eta harrapakina entzuten duenean, lasterketa laburraren ondoren ehizatzen du.

HABITATA: urre-txirriak itsasbazterrak eta padurak baino landa eta ibarrak nahiago dituen zangaluze bakarria da. Neguan, landazabaleko larre eta zelai istilduetan bizi da.



TXIRRI GRISA (*Pluvialis squatorla*)

EZAUGARRIAK: txirri gris eta urre txirria sarritan ikus daitezke neguan Euskal Herrian. Nahiko antzekoak dira bi espezieak, bai ohituretan bai negu-lumajean, nahiz eta bigarrena ez izan bestea bezain kostaldetara, eta neguan kultibo-landa eta etzeak maiztatu. Bi espezieak behatuak izaten dira eta sarritan euskal ehiztariengandik harrapatuak; baina negu-hegaztiak direnez gero, ezin dituzte miretsi limikolo hauek udan erakusten dituzten lumaje ederrak.

Hegan ari denean, galtzarbe beltz deigarria erakusten du. Ale gazteek tonu marroioagoak izaten dituzte eta, ondorioz, Urre-txirri arruntarekin nahas daiteke. Azken horrek baino moko indartsu eta luzeagoa du Txirri grisak eta begiak zein burua handiak eta biribilduak ditu. Hegan astiroago egiten du, hegalez-zerrenda zuria erakusten duela.

TAMAINA: luzera: 28 cm.

BIOLOGIA: ez dira umatzen Euskal herrian; hala ere, Iparaldeko ekaitz gogorrekin batera ikus ditzakegu gure kostaldeetan.

Espezie hau, Iberiar Penintsularen jagokonean urritzat aitatua izan bada be, azken urteotan egindako erroldak negualdian halako ugartasunaz izaten direla adierazten dabe. Negutar arrunta, sarritasun zehatzik bakoa bada be, Gernikako itsa-



sadarrean. Lehen hegaztiak Irailaren erdialderantz ikusi izaten dira, nahiz eta udagoieneko igaroaldia batez be Urrian egin. Azkenengoz Maiatzaren amaiera alderantz ikusi izaten dira.

ELIKADURA: harrez eta bestelako ornogabez elikatzen da **HABITATA:** kostaldetik gertu bizi da, paduretan, itsasadarretan eta ingurune hezeetan.

Holoartikoan oso hedatutako espeziea da eta tundrako kostalde osoan habia egiten du. Mendebaldeko Europan ikusten diren aleak Errusiako Artikotik etorritakoak dira. Espezie hau migrazio luzeakoa da eta hegoaldeko hemisferioko kostalde guztietan igarotzen du negua.

Neguan estuarioetara Urre-txirri arrunta baino askoz, ere lotuagoa da.

TXIRRI LODIA (*Calidris canutus*)

EZAUGARRIAK: txirri sendo eta handia, neguan eta udan oso bestelako lumajea duena. Araldiko lumadia oso deigarria da, azpialdea eta aurpegia laranja-gorrixka eta bizkaraldea gehienetan ezkata latzak dituen, gris ilunak nagusi izanik. Udazkenean eta neguan, ordea, bizkaraldea gris monotonoa du eta sabelaldea argixeagoa.

Ale gazteen lumajea helduenaren antzekoa da neguan, baina okre-kolorerako joeratzorarekin. Hegoetako lumen azpildura nabarmentzen zaie. Moko beltza eta hanka berdeak proportzioan beste txirrienak baino motzagoak dira. Hegaz dabilzanean, hegalez-zerrenda estu eta zuria eta gris uniformeko isatsa erakusten ditu.

TAMAINA: 24-26 cm.

BIOLOGIA: negupasan itsasbaterreko hegaztia da erabat. Arktiko garaiko habiagilea da eta bost subespezie deskribatu dizkiote. Europako Mendebaldetik gertueneko ugalketa-lekuak Groenlandian daude eta bertan dabilzanak Cali-



dris canutus Islandica subespezieari dagozkio.

ELIKADURA: bere mokoarekin haztatuz harrapatzen dituen ornogabe txikiak jaten ditu.

HABITATA: batez ere eztei ondoko migrazioan (batzuetan denboraldi luzea hartzen du, uztailetik urrira arte) ikusten da.

kostaldean bizi da, eta hondartzak eta padurak atsegin ditu.

TXIRRI ZURIA (*Calidris alba*)

EZAUGARRIAK: itxura argi eta trinkoa duen txirria da. Atentzioa ematen du bere mugikortasun izugarriak. Hondartzetan uraren ertzean uhinen joan-etorriaren arabera ibili ohi da. Udako lumajean hegaztiak bizkaralde, buru eta bularralde gorritza dute, baina bizkaraldea oso ezkatatsua da. Neguan lumadia ez da hain deigarria; ia zuria dirudien gris argia du. Ale gazteek itxura ezkatatsua izaten dute, bizkaralde osoan tonu zuri eta beltzekin.

Mokoa sendoa eta hankak Txirri lodia-renak baino luzeagoak dira. Atzeko behatzik ez du. Hegan ari dela, hegalez-zerrenda zabal zuria erakusten du oso hego ilunaren gainean. Isatsa grisa da alboetan eta beltza erdian. Ipurtxunturrak berriz, bi orban zuri ditu alboetan.

TAMAINA: 20-21 cm.

BIOLOGIA: Artikoko tundran egiten du habia. Gugandik gertuen dauden ugalketa-lekuak Groenlandia eta Svalbard dira. Neguan, ordea, erabat itsas bazterrekoa da eta talde han-



diak ibiltzen dira Ipar Itsasoan negupasan.

ELIKADURA: larreetan eta urmaeletan intsektuz, krustazeo txikiz, igelez eta zapaburuz elikatzen da, eta paduretan harrak, moluskuak, krustazeoak... jaten ditu.

HABITATA: kostaldean bizi da, eta hondartzak eta padurak atsegin ditu.

Erabat paseko hegaztia da eta Euskal Herrian noizbehinka baino ez da azaltzen.

TXIRRI KURLINTA (*Calidris ferruginea*)

EZAUGARRIAK: txirri arruntaren oso antzeko hegaztia da, eta azken horren gatik bereizteko dituen ezaugarriak hanka eta moko luzeagoak izatea da. Eztei-lumajearrekin sabelaldea, bularraldea eta burua Txirri lodia-arenak baino gorri ilunagoak dira, eta bizkaraldea ere, nabarra eta xake-itxurakoa, ilunagoa da. Neguan bizkarra gris berdinekoa da, sabelaldea zuria da eta bekain argia nabari zaio.

Ale gazteen ezaugarria goialdea tonu okrekoa edukitzea da. Moko beltza beherantz kurbatuta da eta beste txirriena baino dezentez luzeagoa du. Hanka luze samarrak dituelako itxura dotoreagoa dauka. Hegan ari dela. Ipurtxuntur zuri berezia eta hegalez-zerrenda mehea ikusten zaizkio.

TAMAINA: 18-23 cm.

BIOLOGIA: Siberiako Artikokoan habia egiten ohi du eta negua igarotzera Asia eta Afrikako hegoaldera joaten da. Tundran egiten du habia, beraz, eta negua igarotzeko kostaldeko beheko zonak hobesten ditu.

ELIKADURA: larreetan eta urmaeletan intsektuz, krustazeo txikiz, igelez eta zapaburuz elikatzen da, eta paduretan



harrak, moluskuak, krustazeoak... jaten ditu. Ia ornogabeak besterik ez du jaten eta kumeak hazteko denboraldian intsektuak nahiago izateen ditu; migrazioan eta negupasan, berriz, poliketoak ditu gogokoenak.

HABITATA: kostaldean bizi da, eta hondartzak eta padurak atsegin ditu.

Eztei ondoko migrazioa abuztuaren amaieratik azaroaren hasiera arte izaten da. Betiere talde txikiak eta ale gazte asko ikusten dira. Eztei aurreko migrazioa ez da hain nabaria eta apiril-maiatzetan izaten da.

TXIRRI ILUNA (*Calidris maritima*)

EZAUGARRIAK: honek, beste txirri guztiek bezala, moko eta hanka luzeak ditu. Txirri handia (*Calidris alpina*) baino zertxobait handiagoa da. Lumaje iluna, eta batez ere, hanken eta mokoaren oinean erakusten duen kolore horia ikusita, berehala ezagutuko dugu.

Txirri arruntaren antzekoa da tamaina eta egiturari dagokionez, baina indartsuagoaren itxura du. Gainera, oso bestelako habitata erabiltzen du. Eztei-lumajearen gainaldea grisaxka da eta sorbalda-lumek tonu gorritak dituzte. Burua iluna da eta azpialdea argiagoa, baina zerrenda gris askokoa. Neguan lumak gris berdinekoak dira bizkaraldean, buruan eta bularraldean. Hanken eta mokoaren oinak neguan laranja-kolorekoak dira eta udan ilunagoak. Hegaz ari denean oso iluna dela ematen du, hegal-zerrenda ia ez zaio ikusten eta ipurtxuntxurrean erdian zerrenda beltza eta albo zuriak ikusten zaizkio.

TAMAINA: luzera: 20 cm.

BIOLOGIA: portaeraz gehiegi fidatzen denetakoa da. Artikoan eta subartikoan, Kanadako ekialdetik Siberiako iparralderaino habia egiten du. Mendebaldeko Europa eta Kanadako ekialdea dira negua igarotzeko lurralde nagusiak. Tundran habia egiten du, baina bere migrazioetan eta negupasan itsasbazerreko hegaztia da eta kostalde harritsuak nahi izaten ditu. Beste zangaluzerik ez dago hain iparraldean negua igarotzen duenik. Negua gure herrian pasatzen duen espeziea da. Irailaren bukaeran iristen hasten da, eta apirilaren bukaerarako alde eginda da. Orain dela urte gutxira arte, euskal



kostaldean hegazti hau ez zen batere ezaguna, eta bertan negutzen zuten ale urriak Bermeon eta Arriluzen biltzen zirela besterik ez genekien. Gaur egun, badirudi arruntagoa eta ugariagoa dela.

Espezie honek Euskal Herrian negutu ohi du, baina urte batetik bestera, negua pasatzera datozen txirri ilunen kopurua oso aldakorra da. Kostaldean ekaitz handiak badaude, urte horretan populazioa handitu egingo da, nahiz eta urtero ugaria izan.

ELIKADURA: ugalketa-garaian batez ere intsektuak janda elikatzen da, baina neguan moluskuak dira dietaren oinarri.

HABITATA: itsasertzean soilik bizi da. Hondartzak eta kostaldeko eremu arrokatuak gogoko ditu, olatu-hormak eta itsasertzeko haitzak batez ere. Hondartza hareatsuetan gutxitan ikus daiteke, baina halakoetan, aingira belarrez estalitako haitzetan eta hondartzen arteko eremu arrokatuetan egon ohi da.

TXIRRI ARRUNTA (*Calidris alpina*)

EZAUGARRIAK: tamaina txikiko zangaluzea dugu hau. Neguan zehar beste txirriekin erraz nahastu daiteke ere, udan sabelalde beltz bereizgarria erakusten du. Negurako lumaberritzen da: sabelaldea zuri bihurtzen da eta bularrak kolore zuri zikina hartzen du, ilunagoa samako aldean. Bizkaraldea arre-grisa da. Moko luzea beherantz okertzen da, baina ez txirri kurlintarena bezain-beste. Azken honek, bestalde, lepo luzeagoa eta silueta lerdinagoa agertzen du. Beste txirriekin ez nahasteko ondokoa gogoratu behar dugu: Txirri zuria argiagoa da, txirri ilunak, mokoaren oinean eta hanketan kolore horia agertzen du, txirri txikia askoz txikiagoa da eta moko laburragoa du, eta azkenik, txirri lodia handiagoa da eta moko laburragoa du ere bai.

Ale gazteek (eztei ondoko migrazioan ikusten dira) bizkarrean, buruan eta lepoan tonu nabarrak dituzte eta bereizgarri marradun beltza dute saihetsetan eta bularraldean. Sabelaldea, berriz, zuria edukitzen dute. Hankak eta moko kolore beltzekoak ditu. Moko zuzena edo

beherantz zertxobait kurbatua muturrean.

TAMAINA: luzera: 18 cm.

BIOLOGIA: neguan batez ere padurak nahi izaten ditu, baina barneko uretan ere ikus daiteke. Euskal Herriko kostaldean hegazti negutar arrunta bada ere. Abuztutik aurrera ikusi ahal izango dugu, baina ale migratzaile gehienak irailean heltzen dira, urrian berriro ere alde egiteko. Udaberriko pasea otsailean eta martxoan gertatzen da. Oso jokabide iheskorra aurkeztu du: arriskuren ikusten bagaitu aurkako norabidean ibiltzen hasiko da, gero eta azkarrago,

eta azkenean alarma-oihu berezia egiten duen bitartean aineratuko da.

ELIKADURA: larreetan eta urmaeletan intsektuz, krustazeo txikiz, igelez eta zapaburuz elikatzen da, eta paduratan harrak, moluskuak, krustazeoak... jaten ditu.

Aitor Galarzak zera behatu du, Urdaibain kurlinta handia, moko luzea erabiliz, txirla zapala (*Scorbicularia plana*) dagoen sakoneraraino heltzen dela.

HABITATA: kostaldean bizi da, eta hondartzak eta padurak atsegin ditu. Ipar-hemisferio osoan banatutako hegaztia da, tundra eta txilardietan habia egiten duena, hasi Artiko garaitik eta Britainiar Irletaraino.

Mendebaldeko European onartutako bedertziz subespezieetako bik egiten dute habia: *Calidris alpina alpina* izenekoak Eskandinavian eta Errusian; *Calidris alpina schinzii* izenekoak Britainiar Irletan, Islandian eta Baltikoaren ertzetan.



TXIRRI TXIKIA (*Calidris minuta*)

EZAUGARRIAK: Europako txirri txikiena da. Eztei-garaian lumajea tonu gorritak dira nagusi bizkarrean, buruan eta lepoan, jaspeztatu beltz eta okreak dituela.

Edozein lumadi-motatan sabelalde zuria du. Neguan bizkarra eta burua gris berdinekoak ditu, baina lehen neguko aleetan errakia markatuagoa da. Ale gazteek eztei-lumajeko helduen antza dute, baina burua grisaxka dute eta "V" irudia nabari zaie bizkarrean. Mokoia eta hankak motzak ditu. Hegazti hau asko mugitzen da, eta horregatik nabarmentzen da pausatuta dauden zangaluzeengandik. Hegan ari denean, hegal-zerrenda estua eta ertz zuriko ipurtxuntxur beltza ikusten zaizkio.

TAMAINA: 12-14 cm.

BIOLOGIA: migrazioan eta negupasan batez ere itsasbaterreko zonak erabiltzen ditu. Errusiako eta Siberiako Artikoan habia egin ohi, du eta, gutxiago bada ere, Eskandinavian ere bai.



ELIKADURA: larreetan eta urmaeletan intsektuz, krustazeo txikiz, igelez eta zapaburuz elikatzen da, eta paduretan harrak, moluskuak, krustazeoak... jaten ditu.

HABITATA: kostaldean bizi da, eta hondartzak eta padurak atsegin ditu. eztei ondoko migrazioa irailetik azaroa artekoa da, eta ale gehienak lehen hilabetea izaten dira. Eztei aurreko migrazioa, apiril-maiatzekoa, ez da hain nabaria.

KURLINTA BEKAINDUNA (*Numenius phaeopus*)

EZAUGARRIAK: tamaina handiko zangaluzea da, sexuaren edo adinaren arabera lumajea gutxi aldatzen zaiona. Urrutia begiratu hegazti erabat nabarra da, moko eta hanka luzekoa.

Hurbiletik begiratuta bizkar ezkatatsua eta lepo zein alboak luzetara zerrendatuak (sabelaldera inguratu ahala argitu egiten zaizkionak) ikusiko dizkiogu. Aurpegiko diseinu bereizgarria du, bi zerrenda ilun dituelako: bata begiaren mailan eta bestea pileoan. Moko beltza

zuzena da muturreko hereneraino, eta hor bat-batean beherantz okertua du. Hegan doala, ipurtxuntxur zurixka ikusten zaio. Erakartzeko dei berezia du, txirula-antzekoa eta errepikatua, zeinaren bidez Kurlinta Handiaren-gandik bereizten baita

TAMAINA: 40-46 cm.

BIOLOGIA: migrazioan eta negupasan funtsean itsasbaterrekoa da. Padurak edo itsasbater harritsuak erabiltzen ditu, ornogabeak janda elikatzen.

Kantzer tropikoaz azpitik kosta guztietan iga-



rotzen du negua.

ELIKADURA: ornogabeak (krustazeoak, moluskuak..).

HABITATA: Euskal Herriak padurako goialdetik kostaldeko marea-lautadetaraino ikus daiteke, baina ugariagoa da itsasadarreko lohietan.

KULISKA BUZTANBELTZA (*Limosa limosa*)

EZAUGARRIAK: kuliskak neurritz kanpoko moko hanka luzeak dituzten zangaluze handiak dira.

Moko zuzenak goranzko okerdura txikia agertzen du, kurlintenak ez bezala, hau beherantz okertuta baitago. Euskal Herrian kuliska gorria eta buztanbeltza ikus daitezke, eta biak bereizteko zenbait ezaugarri izan behar dugu kontuan: hegan egiten duenean, kuliska buztanbeltzak hegoetan zerrenda zuria agertzen du eta buztanaren muturra beltza du; kuliska gorria, berriz zertxobait txikiagoa da, mokoak goranzko okerdura handiagoa du, ez du hegoko zerrendarik aurkezten eta buztanaren muturrean orbanek apaindutako kolore gorria erakusten du. Ale gazteek bizkar ezkatatsua dute, baina tonu gorritak nagusi dira buruan eta lepoan. Edozein urtesasoitan nabarmen dute bekain zurixka. Hegan ari denean, espezieak hegal-zerrenda zuri zabala eta ipurtxuntxur zuriaren gainean ertzeko zerrenda beltza erakusten ditu.

Hankak beltzak dira eta Kuliska gorriarenak baino dezentez luzeagoak. Moko gorritza oso luzea da, erabat zuzena eta muturreko herena beltza duena.

TAMAINA: luzera: 43 cm.



Hego luzera: 70-72 cm.

BIOLOGIA: Habia belardi hezeetan egiten du eta negua estuarioetan edo ur gezako masetan igarotzen du.

Eurasian baino ez du habia egiten, Islandiatik Txina eta Siberiaraino. Negupasa Europan eta Asian ez ezik, Ozeanian eta Afrikan izaten du. Onartutako hiru subespezie daude, baina gure zonan Limosa limosa limosa ikus dezakegu, Europako erdial-

dean eta mendebaldean habia egiten duena, eta Limosa limosa islandica, Islandian eta Ipar Itsasoko uhartetan ugaltzen dena.

Udazkenean, irailetik azaroaren hasiera arte, heltzen hasten da. Iparraldetik ekaitza sartzen denean, hotzetik ihesi datozen talde handiak hurbiltzen dira elikagai bila. Euskal Herrian, martxotik maiatzera arte gertatzen den udaberriko migrazioan errazago ikusiko dugu. Europako iparraldetik dator, eta Europako hegoaldean eta Afrikan negutzen du, nahiz eta zenbait ale India eta Australiaraino iritsi. Itsasbeheran agerian gelditzen diren buztin eta hareetan eta sakonera txikiko putzuetan ibili ohi da. Itsasgoran, haitzetara eta kaletara abiatzen dira atseden hartzera.

ELIKADURA: bere mokoia lokatz sakonean sartu, eta mutur sentikorraren bidez harrapakinak ukituz, molusku txikiak, krustazeoak, harrak eta bestelako ornogabeak harrapatzen ditu.

HABITATA: itsasertzeko estuario eta paduretan, eta barnealdeko aintzira eta azaleko putzuetan bizi da.



KULISKA GORRIA (*Limosa lapponica*)

EZAUGARRIAK: kuliska gorria kuliska buztanbeltzaren antzekoa da, nahiz eta ez hain kostarra izan; hegan doanean erraz antzematen zaio, hegaletan zerrenda bat agertzen ez duelako.

Tamainaz Kuliska buztanbeltza baino zerbait txikiagoa bada ere, hanka laburragoak dituelako ez da hain lerdena. Udako lumajea Kuliska buztanbeltzak baino gorri biziagoa eta hedatuagoa du. Hain zuzen, kolore hori buru, lepo, saihesta eta sabelalde osora zabaldua du. Bizkarra nabar gorritzat baina oso ezkatatsua izaten du. Neguan nabar bihurtzen da, bizkar ezkatatsuduna eta azpialde zurixkak dituen. Bi lumaje horietan isatsa zeharka oso zerrendatua du eta nabarmen erakusten du hegan ari denean. Une horretan, ipurtxuntxur zurixka ere nabari zaio. Hankak beltzak dira eta gorantz zerbait kurbatutako mokoa du (oinarria arrosa-kolorekoa du neguan).

TAMAINA: luzera: 38 cm.

BIOLOGIA: habia egiteko habitata tundra du eta negupasarako lekua gehienetan estuarioa izaten da. Eskandinaviako Artikoa eta Alaskan habia egiten duten hiru subespezie daude. Gure zonara azaltzen direnak subespezie izendatukoak dira, Eskandinavian eta Errusian ugaltzen direnak.



ELIKADURA: bere mokoa lokatz sakonean sartu, eta mutur sentikorraren bidez harrapakinak ukituz, molusku txikiak, krustazeoak, harrak eta bestelako omogabeak harrapatzen ditu.

HABITATA: itsasertzeko estuario eta paduretan eta barnealdeko aintzira eta azaleko putzuetan bizi da. Espezie arrunta da igaroaldietan neguetan urria izaten da kantauriar itsasaldeetan.

Gernikako itsasadarrean zabalduago, dago kuliska buztanbeltza baino. Udaberriko igaroaldia Martxoaren erdi aldetik. Maiatzaren amaiera arte izaten da; udagoienekoa, nabarmenagoa izaten dana. Irailaren hasieratik urriaren amaiera arte.

KULISKA ZURIA (*Tringa nebularia*)

EZAUGARRIAK: tamaina ertaineko zangaluzer hau. Kuliska zuriaren kolorea grisaxka eta beltza da. Europako kulisketan handiena da. Bere edozein lumajeren ezaugarriak oso gris argia izatea eta egitura lerdia izatea da. Horrez gain hegaztiak mugimendu azkarrak ditu. Udan ugalketarako diren aleek gainalde gris argia dute, baina luma batzuk ilunagoak dituzte; saihestak eta lepoa, berriz, zerbait zerrendatuak ageri dituzte. Neguan bizkarra kolore berdineko grisa izaten da, baina lumen ertzak ilunak ditu. Ale gazteak zerbait ilunagoak dira. Hankak berdeak dira eta mokoa, gorantz zertxobait kurbatutakoa, arbel grisaren kolorekoa. Hegan ari dela, ipurtxuntxur zuri triangeluarra nabarmentzen zaio bizkar gris argiaren gainean. Ez zaizkio subespezieak erregistratu.

TAMAINA: luzera: 31 cm.

BIOLOGIA: Eurasiako iparraldeko tundra eta eremuetan egiten du habia. Estuarioan urte osoan egoten da. Eztei aurreko migrazioa ez da hain nabaria.

ELIKADURA: itsasbeheran agerian geratzen den buztinean eta harean harrapatzen dituen harrak, moluskuak, krus-



tazeoak eta bestelako omogabeak jaten ditu. Lan horretarako omogabeak jaten ditu.

HABITATA: aintziren bazterretan eta hauen inguruko landetan, ibaietan eta bestelako toki hezeetan ugaltzen da. Sarria baina urria, hala igaroaldietan zelan negualdian ere penintsula guztian.

Gernikako paduretan, sarritasun zehatzez ikusi izaten da saldo txikietan, urtearen zatirik handienak. Udaberriko igaroaldia ez da lar nabarmena eta azken txoriak maiatzaren azken alderantz ikusi izaten dira; udazkenekoa abuztuaren azkenetatik urriaren amaiera arte izaten da. Negutar erregularra.

KURLINTA HANDIA (*Numenius arquata*)

EZAUGARRIAK: Europako hegazti zangaluzer handiena da. Kurlinta bekaindunarekin erraz nahas daiteke, baina hori baino handiagoa da, moko luzeagoa du, aurpegian ez ditu zerrenda ilunak eta urrutira begiratuta dezentez argiagoa dirudi. Lumajea nabarra edo grisaxka da, gorputz osoa ezkatatsua, baina sabelaren atzealdea zurixka. Bere hegaldi indartsuan ipurtxuntxur zuria erakusten du. Mokoa barrenetik kurbatua da eta lehen herena haragi-kolorekoa du. Hankak grisaxkak dira. Emeak handiagoak dira eta mokoa nabarmen handiagoa dute.

TAMAINA: luzera: 54-59 cm. Hego luzera: 95-110 cm.

BIOLOGIA: udazkeneko migrazioa abuztuaren hasi eta azaroaren erdialdean bukatzen da, eta udaberrikoa, apirilaren erdialdetik maiatzaren bukaera arte gertatzen da. Txirri arrunten saldoek zuzen eta seguru hegan egiten duten bola nahasien antza dute. Zenbait buelta eman ondoren pausatu egiten dira, berehala aire-ratzeko, eta jokaera urduri hau etengabe errepikatzen dute. Moko luzeari esker harean edo lokatzean 4-5 zentimetroko sakonean dauden harrapakinak ehiza



ditzakete: molusku bibalbio txikiak, poliketoak eta bestelako omogabeak, gehienetan.

ELIKADURA: oso aktiboa da, hondartza harritsuetan eta hareatzetan higitzen delarik elikaduraren bila; elikadura hau moluskuz, nahiz eta oskoldun eta itsas zizarek ere elikatu.

HABITATA: kostaldetik gertu bizi da, paduretan, itsasadarretan eta ingurune hezeetan. Belarra ere atsegin duenez, txilardi eta lareetan ikusi ahal izango dugu.

Eurasiako iparraldeko erdian egiten du habia eta horretarako, era askotako espazio irekiak hartzen du (txilardiak, padurak, barneko zona hezeak, larre hezeak, etab.).

Tundrako zonak ez ditu erabiltzen. Kurlinta bekaindunak baino hegoalderago ugaltzen da eta horrek baino migrazio-ibilaldi laburragoak ditu. Bi subespezie onartu zaizkio eta izendatua da mendebaldeko Europa hedatuta dagoena.

Gure kostaldean ikus daitekeen zangaluzerik handiena dugu. Arre koloreko lumajea sabelaldean argiagoa da, baina ezaugarriak deigarriena, behearantz okertutako moko luzea da. Migrazio-garaian ikus daitekeen kurlinta bekaindunarekin (*Numenius phaeopus*) nahas daiteke, baina kurlinta handiak tamaina handiagoa du, moko luzeagoa du eta horren okerdura handiagoa da, eta azkenik, ez du bere ahaideak erakusten duen bekain beltza aurkezten.



BERNAGORRI ILUNA (*Tringa erythropus*)

EZAUGARRIAK: tamaina ertaineko zangaluzea da, oso liraina. Helduek araldiko lumajea erabat beltza dute. Bizkarrean, ordea, ezkata zuri-grisaxka du. Araldian hankak ere beltzak dira. Neguan gainaldeko kolorea gris berdina da eta sabelaldera apurka argitu egiten da. Horregatik nahasten erraza den Bernagorri arruntak baino askoz itxura argiagoa du. Neguan hankak gorri argi bihurtzen dira. Brida beltza eta bekain zuria ere ageri zaizkio. Hegan ipurtxuntxur zuria nabari zaio, isatsa zeharka zerrendatuta duelarik. Bernagorri arruntarengandik mokoia eta hankak luzeagoak dituelako eta hegoetako ertz zuririk ez duelako ere bereizten da.

TAMAINA: 28-32 cm.

BIOLOGIA: neguan ur gezako eta gazikarako era askotako masak hartzen ditu. Zangaluze honen banaketa paleartikoa baino ez da, eta Euroasiako taiga osoan habia egiten du. Negua batik bat



Afrikan igarotzen du eta sakabanatuago European eta Indiako Ozeanoko Asiako kostaldeetan.

ELIKADURA: Euskal herrian elikaduraren oinarri poliketoak dira, baina ugalketan era askotako omogabeak jaten ditu.

HABITATA: Euskal Herrian iraila eta maiatza bitartean egoten da.

BERNAGORRI ARRUNTA (*Tringa totanus*)

DESKRIBAPENA: tamaina ertaineko zangaluze hau, hanken eta mokoaren kolore gorri biziagatik ezagutuko dugu. Hegan egiten duenean, hegoen ertz zuria bereiz daiteke, eta kontuan hartu behar dugu beste bernagorriek ez dutela horrelakorik agertzen. Izena, sortzen duen apeu bereizgarriak ematen dio. Tamainari dagokionez, bernagorriak txikiak dira.

TAMAINA: luzera: 28 cm. Hego luzera: 45 cm.

BIOLOGIA: udazkeneko migrazioa abuztutik urrira gertatzen da, eta udaberrikoa martxotik maiatzera. Ale urriek aukeratzeko dute euskal kostalde negua pasatzeko, mediterraneok kostaldean eta barnealdeko aintziretan ugariak badira ere. Banaka edo talde txikitan agertzen da. Itsasbeheran agerian geratzen den buztinean eta harean harrapatzen dituen harrak, moluskuak, krustazeoak eta bestelako omogabeak jaten ditu. Lan horretarako omogabeak jaten ditu. Lan horretarako mokoia sedimentuan sartzen du, eta muturrean duen ukimen handiko egitura mugikorra erabiliz, harrapakinak azaleratzen ditu.



ELIKADURA: moluskuak, harrak eta krustazeoak.

HABITATA: aintziren bazterretan eta hauen inguruko landetan, ibaietan eta bestelako toki hezeetan ugaltzen da. Negua Euskal Herrian pasatzen duenean, itsasadar eta paduretan finkatzen da, eta aldi baterako besterik ez daterenean, habitat hauetaz gain, itsasbatterak, hondartzak, hareatsuak, kala arrokatsuak eta, noizbehinka, kaiak aukeratzeko.

HARRI-IRAULARIA (*Arenaria interpres*)

EZAUGARRIAK: neguan eta udan erakusten duen lumajea oso desberdina da. Gure lurraldean neguko jantzi hitsa ikusiko dugu gehienetan: bizkaraldea arre-grisa da, sabelaldea zuria, eta bularrean eta paparrean orban iluna agertzen du. Hegan egiten duenean bereiz daitekeen kolore grisak eta zuria-arte kontrastea, hegoetan daukan bi zerrenda zuriek, eta ipurtxuntxurreko eta hegoen oineko kolore zuria sortzen dute.

Eztei-jantzia deigarriagoa da, bizkarra arre-gorria, eta lepoa, aurpegia eta sabelaldea zuri bilakatzen baita. Urte osoan zehar, hanketako kolore laranja ikusita erraz ezagutuko dugu. Mokoia, iluna eta laburra, gorantz zertxobait okertuta dago.

Hegan ari denean, hegoetan eta isatsean diseinu zuri-beltz nahastezina ikusten zaie. Mokoia oso indartsua eta gorantz zerbait makurtua da. Hankak, berriz, laranja-kolore deigarriak dira urte osoan zehar.

Artikokoa den hegazti habiagilea da. Bi subespezie deskribatu dira. Izendatuak Errusian, Eskandinavian eta Groenlandian egiten du habia.; Mendebaldeko European dabiltzan ale gehienak ere subespezie izendatukoak dira. Espezie honetako kopuru handi batek mendebaldeko European igarotzen du negua.

TAMAINA: luzera: 23 cm.

BIOLOGIA: uharte harritsuetan habia egiten du eta gehienbat intsektuak janda elikatzen du.

Abuztuaren erdialdetik hasiko gara, dagoeneko, harri-



iraunlariak ikusten, eta urte sasoi horretan, oraindik, eztei-jantzi deigarria erakusten dute. Urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran hegazti hauen etorrera aurrera doa, eta batzuk Euskal Herriko itsasertzean geratuko dira negua pasatzera. Hantz handiak edo harriak daukaten lekuetan ibiltzen da, bertan elikagaiak aurkitzen baititu: lapa txikiak, harrak eta beste zenbait omogabe. Horiek harrapatzeko, moko okerra harrien azpian sartzen du, eta buruari azkar eraginez, buelta ematen die. Neguan, banaka edo talde txikietan aurkituko dugu, eta

askotan haitz berdinetan ibiliko dira elikagai bila. Apirilak edo maiatzak aldera gure lurraldetik alde egiten du ugaltokirantz abiatzeko.

ELIKADURA: lapa txikiak, harrak, eta beste zenbait omogabe jaten ditu.

Migrazioan eta negupasan dieta batez ere krustazeoek eta itsasoko beste omogabe batzuek osatzen dute, zeinak bere moko indartsuaz harri eta alga artean behin eta berriz bilatuta lortzen baititu.

HABITATA: migrazio-garaian eta neguan, itsasertzean beha daiteke. Kaletan eta itsasertzeko eremu harritsuetan egoten da, baina batez ere, kaletako eta kaletako harri handietan eta haitzetan ikus daiteke.

Zangaluze guztien kasuan gertatzen den bezala, askoz errazagoa da migrazio garaian ikustea.





Arrain Editoriala




Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz
euskaraz idatzitako lanarik handiena

ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK



**ARRAIN
EDITORIALA**

TLF: 94 490 34 04
e-mail: arrain@arrain.es
web: www.arrain.es



ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK

Antropologiari eta Bioaniztasunari buruz euskaraz idatzitako lanarik handiena



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA
POLITIKA ETA KULTURA SAILA

“Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundutakoa”